

1. Hizkuntzaren historiaren azterketa

1. Zientzia historikoak.— 2. Hizkuntzaren historia eta euskararen historia.— 3. Diakronia eta Filologia.

1. Zientzia historikoak

Zientzia mundua ezagutzeko beste bideetatik bereizten duten hatsarreak landuko ditugu eta hizkuntzaren historian —eta historian oro har— hatsarre horiek zertan dautzan zehaztuko dugu, objektibotasunaren bilaketan bereziki sakondurik.

1.1. Mundua ezagutzeko moduak

Jendartean jakintzat ematen da unibertsitatean bi alor nagusi direla: “zientziak” eta “letrak”. Banaketa hau, Espainian behintzat, 1970eko *Ley General de Educación* delakoari zor bide zaio, lege hartan hiru batxilergo mota jarri baitziren: letretakoa, zientzietakoa eta mistoa. Banaketa hori zer ikertzen den eta honetan oinarritzen da: planetak, molekula eta mikrobioak aztertzen dituztenak zientzietakoak dira; hizkuntzak, literatura edo historia aztertzen dituztenak, berriz, letretakoak.

Hala eta guztiz ere, badago banaketa eraginkorrago bat, ez *zer* ikertzen den, baizik eta *nola* ikertzen den eta honetan oinarritzen dena. Honen arabera, metodo zientifikoa betetzen duten alor guztiak zientziak dira. Hemendik sortzen da beste banaketa ezagun bat: *giza zientziak*, *gizarte zientziak* eta *natur zientziak*, zeinaren arabera, mikrobioak aztertu zein hizkuntzak, besteak beste, berdin ari zara zientzia alor batean.

Hizkuntzaren historia giza zientzien multzoan kokatzen da. Zientzia bat zerk bereizten duen gaingiroki azaltzearen, Jorge Wagensberg zientzia-hedatzaile ezagunak (1998) emandako azalpenetan oinarrituko gara.

Mundua edo errealitatea ezagutzeko moduak hamaika dira berez, baina funtsean hiru nagusitan laburbil daitezke, gainerako guztiak neurriren batean hiruron konbinaketak direlakoan: ezagutza artistikoa, ezagutza errebelatua eta ezagutza zientifikoa.

EZAGUTZA ERREBELATUA bi hatsarretan oinarritzen da: (1) errealitate osoa ezagutzen duen izaki bat bada, eskuarki “jainko” deitua; (2) izaki horrek (batzuetan) ontzat hartzen du guri errebelatzea bere ezagutza edo, hobeto esanda, bere ezagutzaren parterren bat.

Hatsarre hauek oso eraginkorrak dira, zeren eta, sinistuz gero, fedea izanez gero, munduari buruzko galderak alferrikakoak baitira, ezagutza edo ezezagutza jainkoaren edo jainkoen erabakiaren baitan dago-eta. Adibidez, kreazionista kristauek uste dute Jainkoak Biblian errebelatu duela mundua noiz eta nola sortu den: zehazki, batzuek uste dut munduak lau mila urte baino ez dituela, eta animalia eta landare guztiak bere horretan Jainkoak sortuak direla. Beraz, Adam eta Ebarekin batera dinosaurioak kokatzen dituzte paradisuari, nahiz erregistro fosilak dioskun *homo sapiens* duela 200.000 bat urte sortua izan zela eta dinosaurioak, aldiz, duela 65 milioi urte desagertu zirela lur azaletik.

EZAGUTZA ARTISTIKOA hatsarre miragarri bakar batean oinarritzen da: zenbait konplexutasun mugagabe (hots, berez konplexuak eta mugagabeak diren zerak), batzuetan berez ulertezinak ere badirenak, irudikapen mugatu baten bitartez transmititu daitezkeela, hala nola maitasuna, tristura, izua, infinituaren aurrean sentitzen dugun harridura, gerrak sortzen digun ezinegona, eta abar. Zientifikoak saiatu bai, baina nekez beren osoan ulertaraz ditzaketen zerak dira horiek; aldiz, irudikapen artistiko bakar batek, poema batek, partitura batek, irudi batek, aktore baten imintzioak..., honelakoek badute tarteka halako konplexutasunok gizakioi era berezi batean transmititzeko gaitasuna.

Artea egiten dutenek, adibidez, ez dute gerra berriro noiz gertatuko den aurrez esan nahi duen teoria bat eratu nahi, ezta trauma ondoko estresaren sintomak deskribatu edota sendatu nahi. Artistak zerbait adierazi nahi du, eta batzuetan besteri ere adieraztea (sentiaraztea, pentsaraztea...) lortzen du. Konplexutasuna transmititzeko edo adierazteko mila modu ditu arteak, eta haietako batzuk miragarriak dira, emozioa eta konplizitatea sortzeko gauza diren heinean. Gerraz ari gara eta, pentsa dezagun Picassoren *Gernika* irudian (1937), edo Erich Maria Remarque-ren *Berririk ez mendebaldeko frontean* eleberrian (1929), edo Clint Eastwood-en *Amerikar frankotiratzailea* filmean (*American Sniper*, 2015), esaterako.

EZAGUTZA ZIENTIFIKOA hurrengo atalean (§ 1.2) azalduko ditugun hiru hatsarretan oinarritzen da: (1) objektibotasuna, (2) ulergarritasuna eta (3) dialektika esperimentalak edo faltsabilitatea. Hatsarreok “deserosoak” dira: ez dute zientzialariaren lana errazten, baizik eta muga garbi eta estuak ezartzen. Hala bada, era askotara ezagutu dezakegu mundua, baina hatsarre hauek ez badute gure lana gobernatzen, ez gara metodo zientifikoaren arabera ari. Honek banatzen ditu zientziak zientzia ez diren gainerako alor ugariatatik, bada.

1.2. Zer da metodo zientifikoa?

Norbaitek noizbait, antzina batean, jakin-minak eramanda errealitatea ezagutzeko jainkoen bitartekotza alde batera uztea erabaki zuen, hots, errebelatutako ezagutza bere horretan sinistu beharrean bere kabuz ikertzea. Jakin-minak piztu zuen zientziaren bidea, beraz, baina denborarekin bide hori zorrotz joan da, zientzialaria aipatutako hiru hatsarreen muga barnean jokatzerara behartzen baitu.

1.2.1. Objektibotasuna

Burmuina eta materia, pentsamendua eta mundua, subjektua eta objektua, behatzailea eta behatua bereizi eta banatu daitezkeela dioen hatsarrea da. Teorian behintzat, ez litzateke behatzailearen arrastorik ere gelditu behar eratzten duen hipotesian. Hori alde materialetik erraz uler daiteke: esate baterako, genetistak hainbat neurri hartzen ditu bere DNA ez dadin nahasi aztertzen ari denarekin: eskularruak, esterilizatutako lanabesak, eta abar.

Alabaina, saihesten zailena den nahasketa ez da materiala, pentsamenduarena baizik. Aldendu ote daiteke benetan behatzailea behatutik? Eszeptikoek ezetz diote: Platonen harako “Ezer ez dakit, ezer ez dakidala baizik” esaldi ospetsuan laburbilduta dagoen pentsamoldearen arabera, gizakion ikuspegia betiere gure zentzumenen mugek (zer ikusi dezakegun, zer entzun dezakegun, etab.), gure pentsamenduaren egiturak (burmuinak nola funtzionatzen duen) eta bestek —hala nola gure kulturak, agian gure hizkuntzak ere— betiere baldintzatzen dute errealitateaz izan dezakegun irudia eta, beraz, haien arabera ez dago inolaz ere errealitatea era objektiboan ezagutzerik. Positibistek, aldiz, baietz diote: alegia, uste dute zentzumenetatik lortzen dugun informazioa

arrazoiaren eta logikaren arabera interpretatuz gero badugula ezagutza egiaztatzeko modua.

Bi ikuspegi kontrajarri hauen arteko tirabirak eztabaida aberats bezain amaitezin baterako gaia eman badu ere, labur esanda badirudi edozeinek onartuko lukeela objektibotasunaren kontzeptua honetan uztea: zientifikoak ez luke aurreiritziz jokatu behar, hau da, zer nahi edo espero duen eta horren arabera. Zaila da hori egiten, dena dela, eta horregatik esan ohi da *desideratum* bat dela (latinez ‘desiratutako zera’), hots, bilatu behar dugun xedea edo helburua, ez nahitaez osoki lortu daitekeena. Gerotxoago zabalduko dugu objektibotasunaren gai hau, zientzia historikoetan nola neurtzen den lantzen dugunean (§ 1.4).

1.2.2. Ulergarritasuna

“Ulergarritasuna” zehazki ez da hitzari eman ohi diogun adieran erabiltzen zientzia-teorian. Mundua gizakiarentzat ulergarria dela, gizakiok uler dezakegula dioen hatsarrea da. Konplexutasun bat ulergarria da baldin eta bakarrik baldin *trinkotu* badezakegu. Honek zer esan nahi duen azaltzeko, Borges-en ipuina aipatzen da beti:

Inperio hartan, kartografiaren artea halako bikaintasunera heldu zen, non probintzia bakar baten mapak hiri oso bat estaltzen baitzuen, eta Inperioaren mapak probintzia oso bat. Denborarekin halako mapa eskergak ez ziren askitzat eman, eta kartografo elkargoek Inperioaren tamaina zuen eta puntuz puntu harekin bat zetorren Inperioaren mapa egin zuten. Hain kartografia zaleak ez zirenez, ondoko belaunaldiek ulertu zuten mapa erraldoi hori alferrikakoa zela eta errukirik gabe eguzki eta negu ankerren eraginpean utzi zuten. Mendebaldeko basamortuetan badira oraindik maparen hondarrak, animalien eta eskaleen bizileku; herrialde osoan ez dago diziplina geografikoen beste aztarrenik.

Suárez Miranda, *Gizon zuhurren bidaiak*, 4. liburua, XLV. kapitulua, Lleida, 1658 (J.L. Borges, “Del rigor en la ciencia”, in *El hacedor*, 1960, nik itzulia).

Inperioaren mapa inperioaren beraren neurrikoa egitea zeinen zentzugabea den ez dago azaldu beharrik, itxuraz behintzat. Ulergarritasunaren hatsarrearen arabera, hortaz, zientzialariak berez mugagabea dena sinplifikatzen du, hau da, era batera edo bestera era trinko eta, beraz, ulergarriago batean ezagutarazten du, konplexutasun hori gobernatzen duten arauak erakutsiz, adibidez. Izan ere, adibide klasikoa Isaak Newton-en bigarren legea da. Berez, objektuen erorketa librean kopurua mugagabea da: zein objektu erortzen den, nolakoa den, nondik erortzen den, nola erortzen den... hamaika erorketa irudika ditzakegu, kopuru mugagabe batean. Borges-en inperioko fisikariek zerrenda amaigabe bati ekingo zioten. Aldiz, Newton-ek honela trinkotu zuen mugagabetasun hori:

Objektu baten momentu linealaren aldakuntza, gorputz horretan eragiten duten indarren erresultantearen proportzionala da eta aldakuntza horrek indar erresultantearen noranzkoa izango du (*Wikipedia. Entziklopedia askea*, s.v. “Newtonen legeak”).

Eta areago trinkotu zuen ondoko formularen bitartez:

$$F = m \cdot a$$

Formula hau aplikatuz gero, ustez edozein objektuaren erorketa librean kalkulatzeko gauza izango gara. Mugagabea zena azken muturreraino trinkotu dugu.

1.2.3. Dialektika esperimental edo faltsabilitatea

Hatsarre hau Karl Popper-en “faltsabilitatearen hatsarrea” delakoan gauzatzen da. Funtsean, hatsarre honek agintzen du hipotesi zientifikoek gezurtatzeko aukera izan dezatela. Hipotesi bat gezurtagarria da faltsua dela erakusteko moduko datuak aurkitzeko edo esperimenduak egiteko aukera dagoenean. “Bele guztiak beltzak dira” enuntziatua gezurtagarria da, zeren eta gezurtatuko bailitzateke baldin norbaitek noizbait bele zuri bat

aurkituko balu, adibidez. Izan ere, aski da beltza ez den bele bat aurkitzea “bele guztiak ez dira beltzak” baieztatu ahal izateko. Kalkulu batzuetan oinarriturik halako egunetan eklipse bat gertatuko dela esatea ere gezurtagarria da, delako egunera arte itxarotea aski baita eklipsea gertatzen den edo ez ikusteko. Gertatzen ez bada, enuntziatua gezurtatzen da: kalkuluak, datuak edo oinarrizko teoria faltsuak zirela esan nahi du ezinbestean. Aldiz, “eklipse bat egongo da, Jainkoak nahi badu” enuntziatua ez da gezurtagarria, zeren eta batera zein bestera, eklipsea gertatzen bada eta ez bada, enuntziatua berdin mantenduko baita (beti egia izango da, nolabait esanda).

Metodo zientifikoan, beraz, ez dago *egia*-rik. Une batean egiaztat jotzen dena esperimentu berri batek, datu berri batek, arazoari begiratzeko modu berri batek gezurta lezake. Honegatik, ezagutza zientifikoa aldakorra da: esan daiteke zientziaren historia iritzi aldaketan historia ere badela. Eta honegatik, halaber, “hipotesiez” edota “teoriez” hitz egiten da:

HIPOTESI: Zerbait azaltzeko edo frogatzeko abiapuntutzat hartzen den behin-behineko baieztapena, gerora egiaztatu behar dena (*Euskal Hiztegia*, s.v., nik egokitua).

TEORIA: Gertakari sail jakin baten azterketatik jakintzak ateratzen dituen ezagutzen sintesi sistematikoa (id.).

Garai bakoitzean zientziak dituen oinarri eta baliabideen araberako behaketak egiten eta teoriak garatzen dira. Baliabideak ugaltu ahala eta zientziak bere buruari egiten dizkion galderak hobetu ahala teoria azalgarriagoak egiten dira. Bidenabar, hemendik baliagarri izango zaigun beste irakasgai bat ere atera behar dugu: iraganeko ikertzaileak, gure ikuspegitik oker egon arren, ez dugu pentsatu behar ezinbestean gu baino inozoagoak direla; askotan beste gaitzik ez dute, beste garai batekoak izatea baizik.

1.2.4. Zientzia egiteko bideak

Ezagutza zientifikoan aurrera jotzeko bi metodo nagusi daude: induktiboa eta deduktiboa, bestela ere etengabe erabiltzen ditugunak gure arrazoibideak egiterakoan, konturatu zein ez.

METODO INDUKTIBOA datuetatik hipotesiak eratzen dituen arrazoibidea da. Datuetan aurkitutako erregularitasunetan oinarritzen da metodo hau, hots, kasu partikularretatik lege orokorrak ateratzen ditu. Adibidez, teilatutik behera tenis-pilota bat, 3 kiloko kuia bat eta paper-bola bat bota ditugu eta behatzaile batek hiru objektuok lurrera noiz heldu diren neurtu du (behaketa). Behaketaren emaitza hauxe izan da: hirurak une berean heldu dira, nahiz pisu ezberdinetakoak izan. Ondorioa (hipotesia): grabitateak objektu guztiak berdin eragiten ditu, euren pisua gorabehera.

METODO DEDUKTIBOA premisetatik ondorioetara doan arrazoibidea. Adibidez, besoetako muskuluek kontrako aldeko garun-azal parietalak bidaltzen dituen borondatezko bulkadei erantzuten diete (1. premisa). Buruko alderdi horretan lesioren bat dagoenean, muskulu batzuen kontrola galtzen da, artean besoetakoak (2. premisa). Pazienteak istripu batean buruan kolpea jaso eta besoak mugitu ezinik dabil: beraz, egiantzekoa da garun-azal parietalean lesioa izatea (ondorioa = hipotesia).

Hala eta guztiz ere, bada osoagotzat eta eraginkorragotzat jo ohi den hirugarren bat, METODO HIPOTETIKO-DEDUKTIBOA, faltsabilitatearekin estuki lotua: metodo honen arabera, behaketatik (datuetatik) hipotesiak ateratzen dira, eta hipotesiak behaketa berriekin egiaztatzen edo gezurtatzen dira. Hipotesi bat gezurtatuz gero, jakina, beste hipotesi bat plazaratu behar.

Teoria batek errealitatearen zati bat ederto azal dezake, eta errealitate hori ulergarri bihurtzeko aurrerapen handiak ekarri. Zientzian maiz gertatzen da teoriak azaltzen ez dituen datuak (jakinaren gainean eta espresuki) alde batera uztea, baldin eta bakarrik baldin teoriak zeraren ulergarritasunean irabaziak dakartzala uste bada, eta hori hobeto azaltzeko modurik aurkitu ezean. Honegatik, teoria zientifikoek ez dute nahitaez *dena* azaldu behar, ez dute munduaren konplexutasun osoaren berri eman behar, baizik eta une jakin batean azalgarritzat jotzen dena. Beste era batera esanda, zientzialariak argi izan behar du zer dakien, baina baita zein diren bere ezagutzaren mugak ere.

Halako batean gerta daiteke teoria berri batek aurrekoak azaltzen zituen zerak ez ezik, azaltzen ez zituen zeretatik batzuk ere azaltzea: ondorioz, teoria zaharra alde batera uzten da berriaren alde, eta denak oinarri berriaren gainean jartzen dira lanean. Honi PARADIGMA ALDAKETA deritzo.

Zientziaren historian hainbat paradigma aldaketa gertatu dira alor guztietan: adibidez, kosmologia goitik behera inarrosi zuen geozentrismotik heliozentrismora aldatu izanak (1543), herentzia genetikoaren ulerkera zeharo aldatu zen Mendelek genetikaren oinarriak jarri zituenean (1866), Newton-en grabitazioaren teoria (1687) Einstein-en erlatibitatearen teoria orokorrak (1905-1915) gainditu zuen eta indoeuroperaren berreraiketa behin-betiko aldatu zen Saussure-k laringalak proposatu eta gero (ik. 4. kap. § 1).

1.3. Hizkuntzaren historia non kokatzen da?

Sortzez eta asmoz, hizkuntzaren historia ezagutza zientifikoaren esparruan kokatzen da. Izan ere, XIX. mendean zientzia bihurtu ziren jakintzen artean Linguistika Historikoa lehenengoetakoa izan zen, alemanez *Junggrammatiker* ‘gramatikari gazteak’ eta euskaraz *neogrammatikoak* deritzegun hizkuntzalari taldearen eraginez. Eurek ezarri zuten ulergarritasunaren hatsarrea Hizkuntzalaritzan, ERREGULARTASUNAREN HATSARREA delakoarekin (Leskien 1876, Brugmann 1878, Paul 1880): hatsarre honek dio hizkuntza baten historian gertatzen diren hots-aldaketak salbuespenik gabeko arauen arabera gertatzen direla. Hau ezartzeko, jakinaren gainean alde batera utzi zituzten bestelako aldaketak, irregularki gertatzen direnak: nagusiki mailegutza eta analogia.¹

Hala bada, datu multzo konplexu eta ugari batetik, hala nola euskaraz antzematen den *o/a* txandakatzetik (*asto/astakeria, astakirten..., zoro/zoratu, zoramen..., otso/otsakume..., deutso/deutsala...*) ondoko araua ateratzen da —edo, goragoko hitzak erabilirik, era honetara trinkotzen da konplexutasuna—:

o > a bi silabako oinarriak eratorri edo elkartzen direnean

Dialektika esperimentala da, berebat, aurrera jotzeko erabili ohi dugun bidea. Esate baterako, Mitxelenak (1958) oso hipotesi ausart bat egin zuen: nongo euskara den eta honi buruzko inolako daturik ez duen Landucciren hiztegia (1562) Arabako euskara galduaren lekukotasuna da. Hipotesia oso eraginkorra izan da: besteak beste, horretan oinarrituta testu gehiago araberrazkotzat jo dira (Sevillako 1619ko poesiaz ik. Ulibarri 2011; Portalen 1610ekoaz Alday 2012). 2004an Lazarraga arabarraren eskuizkribua agertu zen. Testua dudarik gabe Arabako euskaran egina izanik, eta aurrean aipatutakoak baino anitzez luze eta aberatsagoa, Mitxelenaren hipotesia egiaztatu edo gezurtatzeko

¹ Forma batzuek jasandako aldaketari deritza “analogia”, hiztunek forma horiek beste batzuekin sumatu duten antzekotasunagatik aldatu direnean. Adibidez, *neure* izenordain indartuaren aldaera da *nere*, *eu > e* aldaketa fonetikoaren ondorioz (monoptongazioa); hiztunek *ni / nere* bikotearen antzekotasuna aintzat hartuta *nire* forma *analogikoa* sortu zuten, *zu / zure*, *gu / gure*, eta abarretan ere oinarrituta. *OEH*-aren arabera (s.v. *ni*), *nire*-ren lehendabiziko lekukotasunak XIX. mendean hasierakoak baino ez dira.

moduko lekukotasuna zen eta, ezaguna denez, hain dira garrantzizkoak bien arteko kidesunak non hipotesia egiaztatuz jotzen baitugu.

Hizkuntzaren historia zientziatzat jo behar badugu ere, baditu berezitasun batzuk, nagusiki giza zientzia eta zientzia historikoa izateari dagozkionak. Eta berezitasun horiek metodo zientifikoaren lehen hatsarrearekin daude lotuta batez ere: objektibotasunarekin.

1.4. Objektibotasuna zientzia historikoetan

Ezagutza zientifikoa gainerako ezaupide nagusietatik bereizten duten hatsarre funtsezkoenetan bat objektibotasuna da, ikertzaileak ikergaitik ahal den guztia aldeni behar gisa ulertua: norberaren aurreiritziak, apriorismoa eta emozioak alde batera utzi eta aktiboki objektibotasuna berma dezaketen bitartekoak (neurvide estandarrak, onartutako metodologia, kide arteko berrikuspenak...) erabiltzea bere burua zientziatzat duen edozein ezagutza-arloren eskakizuna da, bada.

Hala ere, “ahal den guztia” horrek adierazi bezala, objektibotasuna ezin daiteke *egia*-rekin nahastu: *desideratum* bat besterik ez da, ezagutzen ganean izan dezakegun konfiantzaren edo kalitatearen adierazle bat. Esan ohi da ikertzailearen begiradak ikergaia aldatu egiten duela edo, beste era batera esanda, erabiltzen dituen hipotesiek eta tresnek —eta are gizakiaren muga fisikoek eurek (zer ikus dezakegun begiz, zer entzun dezakegun belarriz, zer irudika dezakegun burmuinaz...)— datu batzuk hautarazten eta besteak alde batera utzarazten diotela ezinbestean. Adibidez, astronomiak mendetan kultura ezberdinetan aurrerapen handiak izan bazituen ere, luzaroan begiz-edo egiten zen (egiata, astrolabioaz eta); Galileok teleskopioa asmatu zuenean (1610), besteak beste Jupiterren sateliteak ikusi ahal izan zituen lehenengoz: eztabaidatua da ea teleskopioak teoria sortarazi zion edo alderantziz izan zen, edo nola, baina adibideak balio digu objektibotasunaren muga garbi batez konturatzeko.

Ikertzailearen (subjektua) eta ikergaiaren (objektua) arteko elkarreragina zientzia esperimentaletan ere gertatu gertatzen den arren, giza (eta gizarte) zientzietan are nabariagoa da, hauetan subjektua objektu bihurtzen delako, hau da, gizakiak bere burua edota beste gizaki batzuk ikertzean dautzalako. Erraz uler daiteke oso zaila dela ikertzailea bere baitatik ateratzea, psikologoak, edo antropologoak, edo hizkuntzalariak bere burua edo bere kideena bera “kanpoan” balego bezala aztertzea, objektuetako bat ez balitz bezala aritzea.

Giza eta gizarte zientzietan historialariak dira gai honetaz beren buruari gehien galdetu diotenak, eta haien irakatsiak gure egin ditzakegu, hizkuntzaren historia ere historia mota bat den heinean.

Historian objektibotasuna hiru zutabetan oinarritzen da: iturri egiazko eta egiaztagarrietan, partekatutako metodoaren zorrotasunean eta gainerako adituekiko kontrastean. Honen infrentzuan, baina, historialariaren lanaren zati handi bat *interpretazioan* datza, hots, gertakarien garrantzia neurtzean eta haien arteko erlazio kausalak ezartzean (Le Goff 1997: 32) edo, lehenago ezarri dugun terminologiara itzulirik, *gertakarien konplexutasun mugagabea trinkotzean*. Datuen interpretazioa edo, nahiago bada, datuen ganean eraikitzen diren hipotesiak, ezinbestean, historialariaren testuinguru sozial eta kulturalak baldintzatzen ditu (*ibid.*): haren gizarte mailak (ideologia sozial eta politikoa), haren erreferentziazko baloreak (norberaren iritziak), haren ezagutzak (gertakariak hautatzeko eta antolatzeako giltzarri) eta haren nortasuna, besteak beste.

Historia zientifikoki egin nahiagatik ere, historialariek ez dute ahaztu ohi historia ez dela *benetako*a inondik inora ere —ez dela *egia*, gorago esan dugunez—, “baizik eta onartutako iritzien multzoa” (Barracough 1955: 14). Le Goff-ek dioenez (1997: 35), “objektibotasun historikoa gutxika-gutxika eraikitzen da, lan historikoa etengabe berrikusiaz, etengabeko zuzenketa nekosoan bitartez, zatikazko egiak pilatuz” (*ib.* 29; nik itzul.).

Izan ere, datuen interpretazioak halabarrez badu subjektibotasunetik zerbait. Hauxe da E. H. Carr-en pasarte klasikoa:

Gertakariak benetan ez dira arraindegian aukeran dauden arrainak bezalakoak. Ozeano zabal eta batzuetan helezin batean igeri dabilzan arrainak bezalakoak dira; eta historialariak harrapatuko duena alde zoriaren baitan dago, baina nagusiki honen baitan, alegia, ozeanoaren zein alderditan dabilen arrantzan eta zein tresna hautatu duen —eta, jakina, zein arrain mota harrapatu nahi duen eta honek baldintzatzen ditu bi faktore horiek—. Oro har, historialariak nahi dituen gertakari motak lortuko ditu. Historia interpretazioa da (Carr 1961: 23; nik itzulia).

Halaber, guretzat oso jakingarria da historialari askok datuen “sakralizazioa” salatu izana: “Datu historikoak objektiboki eta askeki historialariaren interpretaziotik at daudela sinistea zentzurik gabeko gezur bat baino ez da, baina jendearen burutik kentzen oso zaila” (Carr 1961: 12). Le Goffek ere (1997: 33-34) gogoratzen digu datu historikoak —iturri gisa erabiltzen diren dokumentuak zehatzago— ez direla lehengai gordin, objektibo eta tolesgabe bat; aitzitik, eurak ere, giza ekoizpenak diren ber, euren testuinguruak baldintzatuta sortzen dira: nork idatziak diren, zergatik, zeren alde edo kontra... kultura baten, ideologia baten, mundu ikuskera baten edota, azken batean, interpretazio baten islak dira eurak ere. Beraz, historialariaren (eta, erants dezadan, are aurrez filologoaren) berrikuspen kritikoaren beharrea dira betiere.

1.5. Ondorioak

Euskararen Historia ere datu egiazko eta egiaztagarrietan, partekatutako metodoaren zorrotasunean eta gainerako adituekiko kontrastean oinarritzen da eta, zientzia historikoa den aldetik, ezinbestean datuen interpretaziora jo behar dugu, maiz datu eskasiaren edo ezaren hutsarteak bete beharrez ere. Ondoko gaietan ikusiko dugu nola —zein metodologiarekin— betetzen diren hutsarte horiek, bete daitezkeen neurrian.

Nolanahi ere, interpretazioa hipotesien bitartez adierazten da, eta hipotesi bezala ulertu behar da: zein ere den gure galdera —nondik dator euskara? ba ote ahaidetik? nolakoa zen antzina? zein ziren haren mugak Antzinatean?...), argi izan behar dugu emango diogun erantzuna hipotesi bat baino ez dela izango, ez *egia berdaderoa*, ez fedeko dogma bat.

Horrek esan nahi du hipotesi guztiak berdinak direla? Ez, inondik inora ere ez. Zientzia eta erlatibismoa —hots, iritzi guztiek berdina balio dutelako ustea— elkarren etsaiak dira. Hipotesi baten interesa bere AZALGARRITASUNAREN baitan dago: azaldu behar ditugunak azaltzeko botere handiago edo txikiagoa izango du, eta honen arabera balioztatuko dugu. Euskara Kaukasotik datorrelako hipotesia, adibidez, ez dakigu egia den edo ez, baina jakin nahi dugunetik ezertxo ere ez du azaltzen: besteak beste, ez du azaltzen zergatik den euskara den bezalako (cf. 3. gaia).

Datu berriak edota azalpen hobeak agertu ahala teoriak aldatuz doaz, eta batzuetan ikusi ahal izango dugu nola sortzen den paradigma aldaketa bat: honelakoetan, ikerketaren oinarria eta norabidea aldatzen dira, hots, beste era batera “harrapatzen” ditugu gure “arrainak”.

Euskararen historian hainbat paradigma aldaketa izan dira. Gutxieneko kontuan, neuk Larramendi (1745), Bonaparte (1869), Mitxelena (1950-1980) eta Lakarrarenak (1995etik aurrera) aipatuko nituzke. Larramendik euskararen gramatizazioa burutu zuen, lehen gramatika (1729) eta lehen hiztegia (1745) argitaratzea lortu zuenean. Bonapartek euskara historikoaren lehen deskribapen dialektologikoa burutu zuen, bi mende pasatxo egin diren ikerketa guztien oinarritzat baliatu duguna. Koldo Mitxelena zenak sartu zuen euskararen historia zientzia modernoaren esparruan eta, besteak beste, berak landu zuen lehenengoz aitzineuskara, nahiz Meillet bere maisuak euskara bezalako hizkuntza isolatuak historiaurrean barrena sartzeko aukerarik ez zutela pentsatu (cf. 4. gaia). Azkenik, Joseba A. Lakarra irakasleak aitzineuskara zaharrago batez egiten ari den berreraiketaren bitartez hainbat euskal forma ilun azaldu ditu dagoeneko, eta paradigma berri honetan zenbat ikertzaile gehiagok jokatu, hainbat eta kontu gehiago azaltzeko modua aurkitzen ari gara (cf. 5. gaia).

Oinarrizko bibliografia

Mundua ezagutzeko moduak: Wagensberg 1998.

Objektibotasuna zientzia historikoetan: Le Goff 1997.

2. Hizkuntzaren historia

2.1. Aldakortasuna

Hizkuntzak etengabe aldatuz doaz. Aldaketa urtez urte gertatzen da, baita leku leku ere. Leku leku aldaketaz dialektologia arduratzen da. Eta historia, beraz, urtez urteko aldaketaz arduratzen ote da? Ez, zehazki. Hizkuntza baten historia behar bezala egiteko, aldi berean hartu behar ditugu kontuan denboraren eta lekuaren ardatzak, koordenatu kartesiarretan legez. Izan ere, hizkuntza aldi bertsuan bi ardatzotan barrena aldatuz doanez, leku leku eta urtez urte, diagraman atzamarra non jartzen dugun eta emaitzak ezberdinak izango dira. Beste era batera esanda, XVIII. mendeko Azkoitiko hizkeran jarriko bagenu, orduko bertako lekukotasunak erabiliz, ikusiko genuke han orduan ez zela gaur egun hitz egiten den moduan hitz egiten: gehiago edo gutxiago, bertako hizkera ere aldatuz joan da tartean.

Hizkuntza etengabe aldatuz doala aspaldiko testuetan inon baino argiago antzeman dezakegu. Har ditzagun *Refranes y Sentencias*-ko (1596) atsotitz batzuk:

3. *Aberassoc jaya daude, chiro gajooc veti neque, auçooc vere yguy daude veti dabilena esque* “Los ricos tienen fiesta y los pobres cuytados siêpre trabajo, los vezinos también aborrecen siempre al que anda pidiendo”.

10. *Aspertu banequio, asper lequiquet* “Si me le yo vêgasse, vêgarse meya”.

52. *Vnayoc arri citean, gastaoc aguair citean* “Los pastores riñieron, los quesos parescieron”.

246. *Oguiagaz hura, oragaz heroen elicatura*, “Pan con agua, mantenimiento de loco y mastín”.

Testua bereziki arkaikoa da: ia errefrau guztietan aurkitzen da arkaismoren bat edo beste, eta arkaismook hizkuntzaren atal guztietakoak dira, hotsetatik hasi eta lexikoraino. Grafiak islatu ez arren, garai hartan eta leku hartan bokal eta diptongo sudurkariak zeudelakoan gaude, egun euskalki berean *igu(i)ña* [igwɨna] dena azaltzeko modu bakararra tartean [*iguni] > [igw̃] bihurtu izana delako (cf. 4. gaia):

RS > gaurko bizkaiera

3 [igw̃] > [igwin], 52 [gastâêok] > [gastaiok]

Aldiz, txistukarien neutraltzea ez da oraindik gertatu (zantzuren bat egon arren: cf. 52 *gastaoc*):

RS > gaurko bizkaiera
aberassoc [tʰ] > [ts], *auçooc*, *oguiagaz* [s] > [ʃ]

Morfologiari dagokionez, aditzoin / partizipio oposaketa oraindik bizirik dago, ez da neutraldu partizipioaren mesedetan:

10 *asper lequiquet*, 52 *arri citean*, *aguir citean*

Halere, neutraltzen hasia da: *aspertu banequio* aditzean [partizipioa + **edin*] perifrasiya dugu, eta *asper lequiquet*-en, ordea, [aditzoina + **edin*]. Ondoko mendean galduko da oposaketa mendebaldean.

Sintaxiaren alorrean “Xkin Y” edo “Xgaz Y” egitura arkaikoa aurkitzen dugu koordinazioa adierazteko (cf. 5. gaia):

246 Xgaz Y = “X eta Y”: *oragaz heroen elicatura* ‘txakurraren eta zoroaren jatekoa’

Hitz batzuek orduko esanahia galdu dute harrezkero (aldaketa semantikoa):

neke ‘lana’ > ‘akidura’
aspertu ‘mendekatu’ > ‘gogaitu’
arritu ‘haserretu’ > ‘harri eta zur utzi’

Eta beste batzuk desagertu dira (aldaketa lexikoa):

unai ‘behizaina; artzaina’ euskaldun gehienok izen berezi bezala baino ez bide dugu gaur ezagutzen.

elikatura RS-ko hapaxetako bat da, Azkuek berpiztuta XX. mendearen hasieran zerbait erabili zena. Egun *elikadura*-k ordezkatu du, adiera tekniko xamar batean.

Behin honaino helduta, parentesi bat egingo dugu zerbait argitzeko. Pentsa liteke diakronian kontu zaharrez bakarrik kezkatzen garela. Eta ez da hala. Aitzitik, egun hitz egiten den hizkera bat ezagutzeko ere egin daiteke lan diakronikoa; hobeto esanda, egin behar litzateke. Adibidez, Camino 1997n (*Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*) aezkeraren oraingo datuak testu zaharrek ematen dituztenekin alderatzen dira, egun gertatzen diren hainbat gauza hobeto ulertzekotan.

Hiztun arruntak ere ohartzen dira aldaketaz. Euskal herri guztietan erraza da entzutea “guk honela esaten dugu, eta hangoek hala”, lekuz lekuko aldaketa dela eta. Hori da ezagunena eta oharterrazena. Hala eta guztiz ere, ziurrenik denok ohartu gara inoiz edo behin ez dugula aiton-amonek bezala hitz egiten: haien hitzak eta esateko moduak ezohikoak dira guretzat batzuetan. Alegia, urtez urteko aldaketari ere erreparatzen diogu. Inoiz aukera dugu lexikotik haratago doazen aldaketez ere jabetzeko. Adibidez, Gernika aldean duela urte batzuk gazteenek /tʰ/ > /tʃ/ aldaketa egin zuten (*dittut* > *ditxut*, *aitte* < *atxe*; Lakarra a.e). Gasteizko gaztelanian ere garai bertsuan belaunaldi berriek /j/ : /j/ oposaketa galdu dute: gure amonak egiten zuen, amak tarteka bakarrik eta guk, seme-alabok, ez dugu egiten.

Aldaketaz ohartzea erraza da, bada. Besterik da azaltzea: hiztunek zer uste duten, batetik, eta adituek zein azalpen eman dioten, bestetik.

Hiztunek jakin-minaz edota ezinegonaz erantzun ohi diote aldaketari. Moglek hauxe dio, bizkaieraren eta gipuzkeraren artekoaz diharduela: “Giputzak entzuten dutenean bizkaitarren izkera, bereala abiatzen dira esaten *au dek euskera zatar*, *astun ta gogaikarria*. *Nork entzun belarriak estaldu gabe?* Bizkaitar askok (ez erri guztietakoak) esango dizute giputzak dirala *labañak beren izkeran*” (Mg CC xiv; grafia nik moldatua). Norberarena ez den beste mintzamolde bat arrotz egiten zaie hiztun askori, nolabaiteko higuina sortzen zaie edota gaitzesten dute, hala mintzatzea *naturala* ez balitz bezala.

Beste batzuei, gutxiagori apika, jakin-mina sortzen zaie: nolatan izan liteke horiek horrela hitz egitea? Esan gabe doa hauetatik sortua dela, azken batean, aldaketa zientifikoki aztertzeko grina.

“Aldaketa” egungo linguistikaren oinarritzko kontzeptuetako bat izan arren, oso berandu arte hitzunei ez eze, ikertzaileei ere ez zitzairen iruditu beharrezkoa zenik. Honek ez du esan nahi aldaketaz ohartzen ez zirenik. Bazekiten hizkuntzak aldatzen direla, baina aldaketa gaitzetsita zegoen: ustelketatzat eman izan da XIX. mendera arte. Larramendik, esaterako, bazekien denborarekin “hitzak eta letrak” ahaztu egiten direla (1728: 121), eta berak erabili zuen aspaldiko liburu batean Bernardo José Aldretek oso garbi adierazi zuen erromantzeak latinetik sortutako hizkuntzak direla, zehazkiago latinaren ustelketatik sortuak: “Haiengan [latinaren garaiaz gero idatzi zuten egileetan] garbi aurkitzen ditugu erabiltzen zen hizkuntza latin usteldu bat zelako zantzuak” (Aldrete 1606: 154; nik itzul.).²

Hizkuntzari buruzko mendebaleko pentsakera Biblian oinarrituta zegoen (hots, “ezagutza errebelatua” zen). Bete-bete sinesten zuten hizkuntza Jainkoak emanikako dohaia dela, eta hizkuntzen aniztasuna Jainkoaren haserraldi batetik sortua: gizakiak Babelgo dorrea eraikitzen hasi zirenean, hainbeste harrotu omen ziren zeruraino igo nahian, non Jainkoak, haserre, ez baitzuen zigor hoberik aurkitu, euren hizkuntzak “nahastea” baino. Hauxe da “Hasiera” edo “Genesisia” deritzan Bibliako liburuko pasarte zehatza:

1 Garai hartan mundu guztiak hizkuntza eta mintzaira berberak zituen. 2 Ekialdetik etorririk, gizonek lautada bat aurkitu zuten Xinear lurraldean eta bertan kokatu ziren. 3 Honela esan zioten elkarri: «Ea, adreiluak egin eta sutan erre ditzagun». Honela, harriaren ordezkari adreilua erabili zuten eta kare-orearen ordezkari bidea. 4 Gero, esan zuten: «Ea, eraiki ditzagun hiri bat eta zerurainoko dorre bat. Ospetsu egingo gara eta ez gara munduan zehar barreiatuko».

5 Jaitsi zen Jauna gizasemeak eraikitzen ari ziren hiria eta dorrea ikustera, 6 eta esan zuen: «Hara, guztiak herri bat bera dira, hizkuntza bat berekoak. Hau beren lehenengo lana badute, ez zaie aurrerantzean egin nahiko duten ezer ezinezko gertatuko. 7 Jaitsi eta nahas diezaiegun, bada, hizkuntza, elkar uler ez dezaten».

8 Horrela, Jaunak handik bota eta mundu zabalean sakabanatu zituen; hiria eraikitzeari utzi egin behar izan zioten. 9 Horregatik, Babel –hau da, «Nahasketa»–, eman zioten izena, han nahasi baitzuen Jaunak mundu osoko hizkuntza eta handik sakabanatu baitzituen mundu zabalera (*Elizen Arteko Biblia*, Gen 11, 1-9).³

Hasieran hizkuntza bat baino ez zegoen, bada. Nahaste hartatik 72 hizkuntza sortu omen ziren, “ama-hizkuntza” zeritzenak; Noeren ondorengo haiek, Babelgo dorrea eraiki zutenek, 72 hizkuntza horietako bat egokitu eta, elkarri ulertu ezinik, munduan barrena sakabanatu omen ziren, zegokien hizkuntza hura berekin eramanez. 72 hizkuntza horietatik sortu omen ziren, beraz, munduan hitz egiten diren gainerako guztiak.

Jainkoak sorturiko lehendabiziko hizkuntza —zena zela— perfektua bazen, haren zigorraren ondoren sortutako 72 horiek agian ez ziren hura bezain perfektuak, baina azken finean eurak ere Jainkoak sortuak ziren eta, beraz, jainkozkoak. Teoria hauen euskarri praktikoa gisa, hebreera —agian paradisuaren lehen hizkuntza hura izan zena—, latina eta greko klasikoaren adibideak zituzten: hirurak hizkuntza hilak zirenez, ez ziren aldatzen. Eta ez aldatzea perfekziozat zeukaten.

Hizkuntza biziak, berriz, begi-bistan zeukaten aldatzen zirela. Jainkoaren zigorraren ondorio izan liteke, baina edonola ere hitzunen zabarkeriari egotzi ohi zioten

² Hitzunek ere hartakotzat jotzen dute *degu*-ren ordezkari *deu* bezalakoak egitea “letrak jan” egitea dela diotenean, esate baterako, edo honela edo hala mintzatzea “euskarri gaitzetsia” dela.

³ Interneteko bertsioa baliatu dut: <www.biblija.net>.

hizkuntzan sumatzen zuten aldaketa: zabarkeriak hizkuntza nahasi eta usteldu egiten du, eta zaintzen ez bada, hiltzera ere irits daiteke. Berrero ere latinaren adibidea ezin egokiagoa da: Erromako Inperioa desegin ahala hizkuntza bera desegin eta banatu zen. Honela dio Aldrete berak:

Godoak eta beste nazio barbaro batzuk Italiara eta Inperioko beste lurraldeetara heldu zirenean, hain galdua zegoen latina lehen izan zenetik, ezen gutxiagorekin ere usteldu egingo zen; baina jende horien etorrera hain handia izan zen, ezen Italian italiara sorrarazi baitzuten, eta Espainian gaztelania (Aldrete 1614: 90; nik itzul.).

Usteltzeko arriskuaren idearen gainean, honi aurka egiteko asmoz, hain zuzen, sortuak dira hizkuntz akademiak: hizkuntza “garbitu, finkatu eta distira emateko” asmoz, Espainiako Akademiaren ikurritzak dioenez.

Aldretek berak eta gero beste batzuek hizkuntzaren ustelduraren berri ematen zuten aldaketa horiek aski ongi aztertu bazituzten ere, aldaketari begiratzeko modua ez zen errotik aldatuko XIX. mendera arte. Mende hura HISTORIZISMOAREN mendea dugu, zeren eta ikertzaile berritzaileenek garapen historikoan aurkitu baitzuten euren alorrari oinarri berriak emateko modua. Beharbada adibide ezagunena Darwinen Eboluzioaren Teoria dugu (mundua ez zuen Jainkoak behingoan den bezala sortu, baizik eta eboluzioaren ondorioz), baina hainbat arlotan berbera gertatu zen. Orduan jaio zen orain letra larriz Hizkuntzalaritza deitzen diogun jakintza-arloa eta, jaio ere, ikuspegi historikoarekin jaio zen.

2.2. Historia, historiaurrea eta protohistoria

“Historia” hitzak bi adiera ditu: adiera zabalean, gertakariak ordena kronologikoan jartzean datzan jakintza-arloa da; adiera hertsian, aldiz, lehenengo lekukotasunetik hasten den garaia. Historialariek marra lodi bat jartzen diote Historiari adiera hertsian, eta lekukotasunik ez den garaia “Historiaurrea” deritzate, ezaguna denez.

Hizkuntzalaritzan ere bi adiera hauek ditu: adiera zabalean, hizkuntzaren bilakabide osoaren azterketa diakronikoa da (adiera honetan jarrita dago irakasgaiaren izena). Adiera hertsian, berriz, hizkuntzaren bilakabide osoaren zati soil batez arduratzen da, lehendabiziko testuak agertzen diren aurrerakoaz, alegia.

Biak ongi bereizi behar ditugu, batean ala bestean ari, eta horren arabera arazo ezberdinak sortuko baitzaizkigu eta, hortaz, irizpide zein metodo ezberdinak erabili beharko baititugu.

Bigarren adiera hertsia goa ez ezik, zehazten zailagoa ere bada. Gurean jakintzat ematen dugu euskararen historia, adiera hertsian, 1545ean hasten dela, Etxepareren liburuarekin. Alabaina, muga sinbolikoa baino ez da, zeren eta historiaren eta historiaurrearen arteko muga ez baita erabatekoa berez: 1545etik aurrera begira jartzen bagara, aitortu behar dugu Historia ez dela une berean hasten euskalki guztietarako: alegia, ez dakigu batere 1545ean erronkarieraz zer gertatzen zen, edo are gipuzkeraz ere, askoz beranduago baino lekukotuko ez diren mintzoak baitira (ik. 2. gaia).

Etxepareren mugatik atzera begiratuta ere gauzak ez dira argiak. Izan ere, ezin esan daiteke 1544 historiaurrearen lehen urtea dela, zeren eta muga sinboliko hori baino lehen bai baitira are zaharrago diren lekukotasunak, euskararen historia —adiera zabalean— hobeto ezagutzeko ezin garrantzizkoagoak, besterik ezean, gehienbat zeharkakoak badira ere.

Gugandik hurbilago dagoenetik hasita, X. mendetik aurrera latinezko eta erromantzezko testuetan gordetzen dira Erdi Aroko euskararen arrastoak, nahiz eta beren izaeragatik —pertsonek eta toki izenak batez ere— ezin pareka daitezkeen XVI. mendetik aurrerako berri zuzenekin. Halere, Erdi Aroan bertan ere baditugu zenbait lekukotasun zuzen: Donemiliagako glosak (XI. mn.?), Aymeric Picaud-ek XII. mendean bildu zituen hitz apurrak, “Pater noster txikia” deritzagun Iruñeko Katedraleko testu laburra (XV. mendea), etab. (ik. 9. gaia).

Are urrutiago, Erdi Aroaren lehen mende ilunak baino atzerago, erromatarren garaira iristen bagara, hantxe ditugu latinezko idatzietan gordetako euskararen hondakinak: Erroma garaiko idazle klasikoek jasotako toki-izen apurrak eta “akitaniera” izenarekin ezagutzen dugun euskararen antzinako forma hartan jasotako pertsona eta jainko-izenak, K. o. I eta III. mendeen bitartean datatuak (ik. 6. gaia).

Zehazki historia-historia ez den, baina nolabaiteko lekukotasunak dituen garai horri PROTOHISTORIA deritza. Aipatu ditugun akitanieraren eta Erdi Aroko euskararen lekukotasunek euskararen protohistoria osatzen dute: haiei esker euskararen historiaurrea 1545tik askoz ere atzerago eraman dugu, Kristo aurreko denboretara.

Nolanahi ere, ez dago 1545 baino lehenagoko lekukotasunetara jo beharrik data horren aurreko euskararen zantzurik aurkitzeko: alde batetik, geroztik argitaratuko zenbait testutan (ahoz transmititutako kantu zahar eta erretra bildumetan bereziki), beren izaeragatik, ziur dakigu aurreko hizkuntzaren islak aurkitzen ditugula (cf. Euskararen historia 2); bestetik, latinetik eta erromantze zaharretatik hartutako maileguez laguntza ezinutzizkoa ematen digute garai haietan euskara nolakoa zen sumatzeko (ik. 4. gaia).

2.3. Barneko historia eta kanpoko historia

Hizkuntzaren historia egiterakoan, bada kontuan izan beharreko bereizketa bat (cf. Mitxelena 1964: 39):

BARNEKO HISTORIA hizkuntzaren beraren historia da. Hizkuntzako datu eta dokumentuek ematen dituzten berriez arduratzen da; beraz, fonologia, morfologia, sintaxi eta semantika diakronikoaren, bai eta lexikoaren historiaren esparrua dugu.

KANPOKO HISTORIA delako hizkuntza komunikabidez darabilen herriaren historiaren ataletako bat da, nork, norekin, zein egoeratan zein hizkuntza (modu) erabiltzen duen ikertzen baitu.

Bereizketa hau, arlo honetako lanak ulertzeko ezinbestekoa da, geroxeago ikusiko dugunez. Baina baita errealitatean ere, zeren eta hizkuntza batzuei buruz asko baitakigu, baina haren hiztunei buruz ezer ez. Adibide bat: menomini izeneko hizkuntza algonkinoak egun 500 bat hiztun baino ez omen ditu, Ipar Amerikako Laku Handien mendebalean, gehienbat AEBetako Wisconsin estatuan. Hizkuntza deskribatzen duten lanak egin dira, baina hiztunen historiaz (nondik datozen, noiz eta nola iritsi ziren...) ezer ez.

Orobat, gerta daiteke herri baten historiaz asko jakitea eta oso gutxi bere hizkuntzaz. Historia klasikoan eta Biblian herri askori buruzko berriak aurki daitezke, baina hizkuntzaz ezer ez. Esate baterako, horixe gertatzen zitzaigun egiptoarrek Champollion-ek (1824) euren idazkera deszifratu aurretik. Halaber, XX. mendean agertu edo azaldu diren hititerak edo tokarierari dagokienez, pentsa dezagun zer gertatuko zen Biblian eta iturri ilunagoetan hiztun eta hizkuntza haietaz esaten denarekin bakarrik jarraitu beharko bagenu. Pentsa dezagun, azkenik, zer genekikeen euskarari buruz, Erdi Aroan suntsitu eta orduko datu urriak bakarrik bagenitu.

Bi historiak beregainak dira, ez dute ezinbestean elkar baldintzatzen duen atalik. Hala eta guztiz ere, euren arteko erlazioa larretsi izan da batzuetan. Nikolai Yakolevich Marr-en ustez (1864-1934) hizkuntza mota ezberdinak giza-taldeen garapenean dauden ezberdintasunak islatzen dituzte; beste era batera esanda, egitura sozial eta ekonomikoak nolakoak eta hizkuntzaren egitura ere halakoa. Honen ideiak eragin handia izan zuten bere garaian (gure artean Vinson eta Unamunok hauspotu zituzten), baina, oro har, azpian datzan ideia oso zabaldua dago, eta egun ere erroak boteak ditu euskarak (eta bera bezalako hizkuntzek) mundu modernoari egokitzeko gaitasunik ez dutela pentsatzen dutenen artean, edo haren egiturak pentsabidea oztopatzen edo moteltzen dutelakoan daudenen artean.

Erlaziorik egon badago bi historia moten artean: hizkuntzen arteko ukipenaren bitartez bideratzen da, eta mailegutza dugu emaitza ezaguna. Erlaziorik erabatekoena hizkuntz heriotza da, noski. Alabaina, ukipenetik eratortzen diren ondorioak alde batera utzita, gertakari historikoek eragin gutxi dute barneko historian. Ondorio honetara iritsi omen zen Iosif Stalin (1878-1953), Frantziako Iraultzak eta Errusiako Iraultzak berak hizkuntzan zeinen eragin txikia izan zuten hausnartzean: bai batean eta bai bestean, gizartea goitik behera aldatu arren, lexikoaren atal zenbait bai (erakunde eta ohitura berrien izenak, besteak beste), baina besterik ez zen aldatu, eta lexikoa hizkuntzaren azala baino ez izan.

Oinarrizko bibliografia

Aldakortasuna: Campbell 1998: 6-10.

3. Euskararen historia

3.1. Nola utsiko diogu guk euskararen historiari?

Hizkuntzen historiako monografia eta eskuliburuek, bata —barneko historia— ala bestea —kanpokoa— landu izan ohi dute duela oso gutxi arte. Oro har esan daiteke bi tradizio nagusi daudela:

TRADIZIO ERROMANTZEA batez ere kanpoko historian oinarritzen da, eta hari barruko ezaugarri garrantzizkoenak tartekatzen zaizkio (gaztelaniaz Lapesa 1984; frantsesez Brunot 1905, adibidez).

TRADIZIO GERMANIKOAN guk “gramatika historikoa” deitzen duguna kokatzen dute *historia* izenaren pean, kanpoko historiari leku gutxi eginik.

Euskararen historiak ez dira gehiegi tipologia egiteko. Baina, badirudi oro har tradizio erromanikoaren barnean kokatzen garela. Alabaina, Trask-en *The History of Basque* (1997) aipa daiteke salbuespen argizat: 450 orritako liburu mardul honetan, “An external history of the language” atalak 15 bat orrialde baino ez ditu (%3); aldiz, fonologia historikoari 70 orrialde eskaini zaizkio, gramatikaren historiari (morfologia eta sintaxiari) 60 eta lexikoaren historiari 100.

Bada hirugarren tradizio bat, Vlasto-ren *A linguistic history of Russia to the end of the eighteenth century* (1986) nahiz Sauvageot-en *L'édification de la langue hongroise* (1971) edo *L'élaboration de la langue finnoise* (1973) liburuetan islatua. Hauetan, barnekoa eta kanpokoa, biak mintzagai izanik, hari nagusitzat kanpokoa hartu eta barnekorantz hurbiltzen dira sinkronia zenbait bata bestearen ondoren kokaturik.

Hasierako kapituluetan zabalenik, baina ia guztietan aurkitu ohi dugu “ortografia”, “morfonologia”, “morfologia”, “sintaxia” eta “lexikoaren eguneratzea” bezalako atalik.

Euskararen historia egiteko, aipatu ditugun hiruretatik Vlasto eta Sauvageot-en erdibidekoaren antzeko zerbait egiten saiatuko gara, hots, kanpoko historia eta barneko historia, bi alderdiak zaintzen dituen ikuspegia.⁴ Izan ere, orain artean kanpoko historiaren ikuspuntutik egin dira aurrerapen gehienak, eta espero izatekoa da aurrerantzean ere halaxe izango dela. Halere, azkenotan gero eta ugariago dira barneko historiara zuzenduriko lanak, eta esan daiteke honezkero euskal gramatika historikoaren hasikinak ezarriak direla, arestian Martínez Areta-ren *Basque and Proto-Basque* bildumak (2013) frogatu duenez.

3.2. Nola eutsi zaio euskararen historiari?

3.2.1. Euskara, denboraz kanpoko hizkuntza

Ikuspegi honen arabera, euskara oso hizkuntza zaharra da, mendebaleko Europako zaharrena, mirakuiluz bezala gaur arte gorde duguna. Ikus dezagun ikuspegi honen erakusgarri ezagunenetako bat, Lluís Pericot historialari katalanarena:

Gaurko herri europarretan, XX. mendeko bizilagunok ezin gaitzake ezerk orain 5.000 edo 10.000 urteko denbora haietara eraman. (...) Horretarako aski dugu guk euskal nekazari batzuei bertsoak kantatzen entzun eta begiak istea. Neolitoko artzainei entzuten ari gara, edo Altamira pintatu zutenei (Pericot 1952, ap. Intxausti 1992: 42; nik itzul.).

Tradiziozko ikuspegia da, eta badirudi gaur egun ere nagusi dugula adituak ez direnen artean. Bi mende lehenago berdintsu pentsatzen zuen Larramendik ere, hau da, Penintsula inbaditu dutenek lurralde zabalak galarazi badizkiote ere, ez dutela aldarazi, Euskal Herriko mendien babesean bere horretan gorde dela:

Hasieratik bizi da espainolen herri-hizkuntza eta ama-hizkuntza gisa; lehen orokorra eta Espainia osoan hedatua, gero estutuagoa, eta azkenotan mendi hauen babesera mugaturik badago ere, bizirik eta osasun onean dago, gainerako hizkuntzak bezala usteltzeko arriskurik gabe. Ez dute lortu suntsitzea mauruek, godoek, alanoek, suediarrek, erromatarrek, kartagotarrek, greziarrek, feniziarrek ez bestek, zeren eta Espainiako gainerako lurraldeetatik botatzea baino ez baitzuten lortu: baina arkaitz hauek gazteluak bailiran babesturik, denbora eta honen kalteengatik ere, jakin du bere arima eta bere gorputza bizirik gordetzen, hain azkar eta sendo, ezen eraberrituko baita eta hilezkor izateko asmoa baitu (Larramendi 1745: xxxiii; nik itzul.).

Eta garbiago:

...euskarak, berrikuntzak eta aldaketak ukitu gabea, eta sasiko eraginik izan gabea, bere antzinako garbitasun eta edertasuna hain osoki gorde ditu, ezen Espainiako lehen populatzaileak (den hura Tubal, edo den Tarsis) gipuzkoarrei entzungo balie, ulertuko bailieke hiztegiak eta interpreteak gabe, bere hizkuntza ahaztua ez balu, behintzat (1745: hitzaurrea, ¶ 5; nik itzul.).

Funtsean, ikuspegi honek jakintzat ematen du euskara ez dela behin ere aldatu, beti bat izan dela, Babeldik, Neolitotik, edo dena delako antzinako garaitik hona. Ikuspegi honek mitoa sustatzen du, eta sasi-historiarako bideak irekitzen.

Hala bada, antzina-antzinako aztarna “argiak” aurkitzen omen dira oraindik euskaraz: Glaziazio garaikoa (duela 10.000 urtetik gora) omen da *horma* hitzak ‘parea’ eta ‘izotza’ adierak izatea aldi berean, hau da, hormak izotzez egiten ziren garaikoa edo, eta Harri Harokoa (duela 4.000 urtetik gora) *aizkora*, ustez (*h*)aitz-etik sortua, *aizto*, *haitzur*, etab. ere bezala. *Horma* eta *aizkora*, biak ala biak mailegu gardenak izatea ez da makala (lat. *forma* ‘forma, etab.’ eta *asciola* ‘aizkora’-tik, hurrenez hurren), baina

⁴ Bidenabar, erdibide hori nagusitzen doa beste tradizioetan ere: gaztelaniaz ik. Cano Aguilar (2004) eta ingelesez Bergs & Brinton (2012).

handiena ez da hori, orduko hitzek bere horretan iraun dutela pentsatzea baizik. Beste era batera esanda, ikuspegi honen arabera, duela 10.000 urteko edota duela 4.000 urteko euskaldunek ere —horrela deitzea balego—hondare zaharrekotzat ditugun hitzak (*aita, buru, emakume, sorgin, zu eta ni, didazu eta deustazu...*)— beren horretantxe erabiltzen zituzten.

Zerbaitetan bai onartzen du ikuspegi honek euskara aldatu dela: mailegutzan hartutako hotsak, hitzak, joskerak, eta abarretan; baina “kaltea” ez da konponezina: denborarekin atxiki zaizkion zer arrotz horiek guztiak kenduz gero, lehengo euskara hura berreskuratuko dugu, Babelgoa, edo Neolitokoa edo; beste izenez “euskara garbia” zein “euskara jatorra” deitu ohi zaiona, alegia.

Ikuspegi hau faltsua dela bi eratara argudia daiteke. Batetik, *Refranes y Sentencias*-era jotzea baino ez dugu, gorago egin bezala, gure begiez ikusteko euskara 400 bat urtetan zenbat aldatu den: zenbat ez ote zen aldatuko 6.000 urtetan? Bestetik, jakintzat ematen dugu giza hizkuntza guztiak funtsean berdinak direla, baita aldatzeko moduan ere. Gorrochateguik (2006) gogoratu bezala, nolabaiteko lekukotasunik utzi duten hizkuntzek argi aski erakusten digute denak ere aldatu direla, gutxi edo asko, baina bat ere ez da lehengo bera. Aldaketaren erritmoa ez da beti bat, aldaketak ez dira hizkuntz sistemaren atal guztietan aldi berean gertatzen, baina hizkuntzak beti ari dira aldatzen, nola edo hala. UNIFORMITARISMOaren hatsarrearen arabera,⁵ historia luzeagoa duten giza hizkuntzek aldaketa sakonak pairatu dituztela frogatuta egonik (hain non oraingo hiztunek ez bailiekete tutik ere ulertuko orduko hiztunei), jakintzat eman dezakegu gaurko euskara ez dagoela Neolitoko “euskara”-tik gertuago, gaztelania edo frantsesa indoeuroperatik baino. Guk ere ez genioke ezer ulertuko Neolitoko hiztunari.

Bestalde, hizkuntza natural guztiak adin berekoak dirateke, azken batean: giza hizkuntza sortu zen garaikoak (cf. 6. gaia). Nahasketa, neurri batean bederen, izenetatik dator: frantsesa eta gaztelania izenez ongi bereizten dira beren arbasoa den latinetik, ingelesa eta alemana germanikotik, errusiera eta poloniera eslavieratik... eta hauek guztiok beren lehen arbasoa den indoeuroperatik, baina euskara beti euskara da ikuspegi honen arabera ari direnentzat. Honegatik ditugu ezinbesteko “aitzineuskara” bezalako izenak: gure hizkuntza ere tartean horiek bezainbeste behintzat aldatu dela, antzina hitz egiten zena euskara bera ez zela argi izan dezagun.

3.2.2. Ahaide galduen xerka

Ikuspegi konparatzaile ortodoxoaren arabera, ez dago ahaiderik gabeko hizkuntzen historiari egiterik, hau da, ez dago euren historiaurrea berreraikitzerik, konparazioa baita aitortzen duten metodo bakarra:

Metodo konparatzailea hizkuntzen historia egiteko metodo bakarra denez gero, hizkuntza bat isolatua den bitartean historia gabekoa da. XVI. mendeko euskararen eta gaur egungoaren artean ezberdintasunak egon badaude; baina aldaketak ez dira oinarritzkoak; funtsean, hizkuntza oraindik bat bera da. Hortaz, euskara beste hizkuntzaren batekin parekatzeko modurik aurkituko ez balitz, ez legoke haren historia sekula egiteko inolako itzaropenik (Meillet 1925).

Aldez horregatik, eta aldez iraganaldiko enigmek gizakiongan sortu ohi duten liluragatik, euskararen ahaideak aurkitzeko askoz ere saio gehiago egin dira —eta egiten ere dira—, beste edozein arlotan baino. “Schuchardt-en eredia” deritzagu honi,

⁵ “Aktualismoa edo Uniformismoa (baita Uniformitarismoa ere) oinarritzko printzipioa da geologiaren ikerketan. James Huttonek proposatu zuen XVIII. mendean, eta esaldi batean laburbil daiteke: *orainaldia iraganaren giltza da*. Printzipio honen arabera gaur egungo prozesu geologiko guztiak iraganean ere modu berean gertatu dira eta, beraz, prozesu geologikoak denboran aldaezinak dira” (*Wikipedia*). Printzipio bera aplikatu dakieke giza hizkuntzaren atal zenbaiti, goian egin dugun moduan.

hizkuntzalari aleman ospetsu honek (1842-1927) euskararen ahaideak aurkitzeari hainbat saio eskaini zizkiolako (cf. 3. gaia).

3.2.3. Historiaren lehentasuna

Schuchardt-en ereduaren ifrentzua “Luchaire-ren eredia” da: protohistoria eta historiaren lekukotasunak bildu eta aztertzea. Achille Luchaire frantsesa (*Étude sur les idiomes Pyrénéens de la région française*, 1879, besteak beste) inor baino lehenago hasi zen gero “akitaniera” izena emango genion hizkuntza horren arrastoak biltzen eta aztertzen, bai eta Erdi Aroko dokumentazioan sakabanatuta dauden euskararen zantzuak arakatzeko eta biltzeko ere. Bitxia bada ere, Schuchardt ez bezala, bera ez zen hizkuntzalari, historialari baizik. Halere (edo horrexegatik, hain zuzen), bete-betean asmatu zuen non zeuden euskararen historian atzera egiteko datu esanguratsuenak.

Mitxelena Luchaireren bidea hobetsi zuen, lekukotasunen laguntzaz euskararen historia oinarri sendoan gainean eraikitzeko eta handik historiaurrera jauzi egin ahal izateko:

...historiaurrea, zuzenean ezagutzen ez dugunari buruz egiten ditugun hipotesien aldamio gutxi-asko egongaitza, historiaren oinarriaren gainean bakarrik sostenga daiteke, hizkuntzaren egoera dokumentatuen gainean, eta historiaren arabera bakarrik existitzen da, zeren eta praktikan historiaurrearen balioa egoera haiek argitzeko daukan gaitasunaren arabera baita. Historiaurrean lasaitasunez aritzeko, beraz, eskura ditugun datuak ahalik eta gehiena ezagutzen ahalegindu behar gara, datu bakar bat ere bazter utzi gabe eta datuak aurkitzeko eta egiaztatzeko eginahalak eginda (Mitxelena 1963: 15-16; nik itzulia).

Mitxelena pasarte ideiaz betea da. Azpimarra ditzagun horietatik hiru: (1) historiaurreaz dakiguna ez da “egia”, baizik eta hipotesi multzo aldakor bat (gogoratu ezagutza zientifikoaz esandakoa: § 1.2.3); (2) hipotesi horiek ahalik sendoenak izan daitezkeen, ezinbestekoa da datuak biltzea eta ustiatzea; eta (3) hipotesi horien helburua hizkuntza historikoa —XVI. mendetik hona dokumentatua dena— argitzea da.

Hirugarren ideia adibide batekin hobeto ulertuko dugu. Zergatik esaten dugu euskaraz *bake*, latinez *pace(m)* /pake/ bazen? Galdera honi emango diogun erantzunak (ik. 4. gaia), bai, egia da latin garaiko euskararen arbasoa nolakoa zatekeen irudikatzeko zantzuak ematen dizkigula, hipotetikoki bederen, baina batez ere *b-* hasiera harrigarri hori duten euskara historikoko *bake* bezalako formak argitzeko balio duen orain arteko hipotesirik onena da. Ahaidetasun hipotesiak oso erakargarriak izanda ere, ez dute lortu horrelakorik ezer azaldu eta, beraz, Mitxelena zeregin ziur eta emankorrageotan aritu nahiago izan zuen.

3.2.4. Euskarak historiari ez?

Meillet maisutzat bazeukan ere, Mitxelena honen ezetz borobila (gogoratu: “ez legoke haren [euskararen] historia sekula egiteko inolako itxaropenik”) gezurtatu zuen, hirutara gezurtatu ere. Lehenik, euskarak historia izan baduela gogoratuz:

Ez dago esaterik, beraz, euskarak historiari ez duenik: zehazki mintzaturik, gehienez ere esan daiteke historia hori laburra dela beste hizkuntza askorekin konparatuta, baita osagabeagoa ere, testuen urritasun erlatiboa dela eta. Baina, aldi berean, luze eta osoa da lehen testuak joan den mendekoak edo bizi garen honetakoak dituzten beste hizkuntza asko eta askoren aldean (Mitxelena 1963: 12; nik itzulia).

Bigarrenik, metodo konparatzailearen ordez **barneberreraiketa** erabiliz:

Barneberreraiketa metodo konparatzailea bezalatsukoa da, baina hizkuntza bakar bati aplikaturikoa. Delako hizkuntza horretan ikusten dugunetik bere historiari buruzko inferentziak egitean datza. Hauxe da barneberreraiketari bide ematen diona: maiz hizkuntzaren egituraren antzeman ditzakegu pairatu dituen aldaketen aztarnak, hala nola aldaera morfologikoak edo

nolabaiteko irregulartasunak. Metodo konparatzailean erabiltzen diren kognatuen ordez, baldintzen arabera itxura fonologiko ezberdinak dituzten formak konparatzen dira barneberreraiketan, hala nola paradigmatan aurkitzen diren txandakatzeak, etab. (Campbell 1998: 225; nik itzulia).

Barneberreraiketa edozein hizkuntza berreraikitzeke erabil daiteke, baita isolatuak ez direnak ere, eta hatsarre oso garrantzizko batean funtsatzen da: *Hizkuntz egoera guztietan gordetzen dira lehenagoko hizkuntz egoeren aztarnak*.

Hatsarre hau egiaztatzeke ohiko adibidea paradigma morfologikoak dira. Paradigmek analogia sortu ohi dute (bertako forma guztiak berdintzeko joera dugu hiztunok), baina tarteka irregulartasunak sumatzen ditugu: bada, irregulartasun horietan aurreko hizkuntza egoerei buruzko aztarnak aurkitzen dira. Esate baterako, *dot/doten, dozu/dozun, dogu/dogun...* paradigma erregularra da (X/X-en), baina *dot/dodan, dozu/dozun...* paradigma irregularra da, 1. pertsonan *t/d* txandakatzea baitugu. Honek frogatzen du, besterik gabe, *dot/dodan* bikotea *dot/doten* bikotea baino zaharragoa dela, eta erakusten digu *-t < *-da* bilakabidea gertatu dela.

Hirugarrenik, Mitxelenak gogoratu zuen euskara ez dela hain isolatua. Egia da ez duela ahaide ezagunik, baina honek ez du esan nahi munduan isolaturik dagoenik, mendeetan besterekin harremanik izan gabe —demagun, isla batean— bizi izan den hizkuntzaren antzera ez, behintzat. Ahaiderik ezak konparaketa ortodoxoa galerazten du, ahaide diren hizkuntzen artekoa, alegia, baina Mitxelenak erakutsi zuen maileguak —euskara munduan isolaturik bizi izan ez delako seinalerik nabariena— euskararen historiaurrea berreraikitzeke gai bikaina direla (ik. 4. gaia).

Hori dela eta, zehazkiago barneberreraiketa mistoa egin zuen, hau da, nolabaiteko konparazioa ere erabili zuen barneberreraiketa sendotzeko: latinezko jatorrizko forma euskaran hartu duen formarekin konparatu zuen, prozesuaren hasiera (latina) eta amaiera (euskara) ezaguturik: adib., lat. *pace(m)* ~ eus. *bake*.

3.3. Ondorioak

Euskara ere, gainerako hizkuntzak bezala, aldatuz joan da historian zehar, 1545etik aurrerako testuek eurek erakusten diguten bezala. Isolatua izatea ez da bitxikeria bat: munduko hizkuntz familien herena inguru hizkuntza isolatuz osatuta dago, Campbell-ek (2011) emandako datuen arabera. Koldo Mitxelenak demostratu zuen behin betiko euskara hizkuntza isolatua izan arren, badirela konparaketa klasikoaz (hizkuntza ahaideen arteko konparaketaz) beste hainbat metodo haren historiaren ezagutzan aurrera egiteko, lehenik haren historian sakonduz (lekukotasunen bilketa eta azterketa) eta gero haren historiaurreari buruzko hipotesiak eginez (berreraiketa).

Hizkuntza isolatuen historia lantzeko erabil daitezkeen metodoak ondokoak dira, besteak beste:

1. Barneberreraiketa
2. Dialektoetan oinarritutako berreraiketa konparatiboa
3. Lekukotasunen azterketa filologikoa
4. Hizkuntz ukipenetik sortutako gertakariak (hizkuntz eremuak)

5. *Wörter und Sachen* estrategiak (“Hitzak eta gauzak”)⁶
6. Konparaketa tipologikoa
7. Gramatikalizazio bideak

Metodo hauek guztiak erabili izan dira eta erabiltzen ari dira, gehiago edo gutxiago, euskararen historian sakontzeko. Mitxelenak 1, 2, 3 eta 4 landu zituen nagusiki. 5. metodoaz Manuel Agud-ek egin zuen saio bat (*Elementos de cultura material en el País Vasco*, 1980), baina ez da oso bide ibilia gurean. Azken urteotan konparaketa tipologikoari eta gramatikalizazioari gogoz heldu eta emaitza oso jakingarriak lortu dira, aurrerago ikusiko dugunez (ik. 5. gaia).

Euskararen historian egin den lan handiaren ondorioz, Campbell beraren ustez munduko hizkuntza isolatuen ikerketarako eredarria da euskara, hauetako gehienak baino askozaz urrunago iritsi baita, iritsi ere, hizkuntza isolatuen historia lantzeko eskura dauden baliabideak biltzen eta erabiltzen.

4. Diakronia eta Filologia

Giza hizkuntzak etengabe aldatuz doazenez, Hizkuntzaren Historiak aldaketak aztertzen ditu, bai **historia berreskuratuz**, hau da, lekukotasunak bildu, balioztatu, aztertu eta interpretatuz, bai **historiaurrea berreraikiz**. Zeregin hauetan batez ere bi aditu ibiltzen dira: filologoak eta hizkuntzalari diakronikoak. Atal honetan beren egitekoak zein diren ikusiko dugu lehenik, baita beren arteko erlazioa zertan datzan ere, eta gero testuei eta lekukotasunei buruz hitz egingo dugu.

4.1. Nork egiten du historia?

BIBL → Campbell 1998: 327-338. Rissanen 1990.

Ezer gutxi dakigu lehenengo mendeetako ahozko hizkuntzari buruz, sarritan ezer ez, ez baitzegoen giza ahotsa grabatzeko tramankulurik. Édouard-Léon Scott de Martinville frantsesak grabatu omen zuen lehenengoz soinua, fonografo delakoaz (1857) eta guretzat ezagunagoa den magnetofonoa 1888an asmatu zen. Lehen euskal grabaketak Europako hizkuntza berezienak grabatzen aritu zen Rudolf Trebitsch etnologo austriarrak egin zituen (1913; ik. López de Arana & López de Arana 1998).

Beraz, gehienera jota zeharkako informazioa aurkitzea espero dugu. Euskaraz, adibidez, ospetsuak dira XVI. mendean bizkaieraz bokal sudurkariak bazirela —zubereraz egun diren bezala— egiaztatzeko balio duten Madariaga arratiarraren hitzok (*Honra de escribanos*, 1565; nik itzul.): “N-a batzuetan sudurretan ezkutaturik ahoskatzen da, hala nola *orazioa, ardaoa...*”. Baina honelakoak ere hutsaren hurrengo dira ahozko

⁶ “Its proponents believed that the etymology of words should be studied in close association with (in fact, in parallel with) the study of the artefacts and cultural concepts which those words had denoted. This process would, it was argued, enable researchers to study linguistic data more effectively. Many of the principles and theories of the *Wörter und Sachen* movement have since been incorporated into modern historical linguistics; for example, the practice of cross-referencing with archaeological data” (*Wikipedia*).

hizkuntzaren aberastasunaren aldean. Hau dela eta, edozein hizkuntzaren historia berreraikitzeke nahitaez testuetara jo behar dugu. Hona hemen hizkuntz historian Filologiak daukan lekua.

Izan ere, Filologia Grezia zaharrean jaio zen, testuak denborak eragindako kaltetik eta ulertezinetik gorde beharrak sortua: batetik, denborak testuaren euskarrian —harria izan, zein papiroa, pergaminoa, papera...— kalte materialak eragiten ditu (pipiak jan, hezetasunak jo, urratu...); bestetik, denbora igaroak ulertezina sortzen du, hizkuntza etengabe aldatzen ari den heinean: hitzak, esapideak, gramatika formak ahaztu egiten dira edo lehengo adiera galtzen dute (cf. gorago ikusitako *RS*-ren adibidea: erretrauek aldean gaztelaniazko itzulpena izango ez balute, nekez jakingo genuke horietako batzuek zer esan nahi zuten). Batean eta bestean filologoaren egitekoa da horrelakoak ahaleginean berreskuratzea.

Gaur egun “Filologia” hitzak adiera asko ditu. Hauxe da guri dagokiguna: testuak biltzea, aztertzea, egiaztatzea eta interpretatzea hizkuntzaren historiari buruzko informazioa erdiesteko. Hots-aldaketak dokumentatzea, berrikuntzak eta maileguak datatzea, konbentzio grafikoetan gertatu diren aldaketen berri ematea... honelako gauzetarako erabiltzen da Filologia Hizkuntzalaritza historikoari dagozkion xedeekin.

Nahiz eta Hizkuntzalaritza Historikoa Filologiatik —hau da, testu zaharren azterketatik— sortu zen XIX. mendean, XX. mendean zehar maiz Filologia eta Hizkuntzalaritza zein bere bidetik ibili dira. Badirudi bakoitzaren ikergai, metodo eta helburuak zeharo ezberdinak direla; areago, muturreko kasuetan ematen du bata bestearen argazkiaren negatiboa direla: filologoa datuzale amorratua, txikieriazalea eta ateorikoa; hizkuntzalaria, aldiz, teoriaren izenean datuak alde batera uzteko gupidarik ez duena. Ez da beti horrela izaten, jakina; eta, gainera, ez luke hala izan behar. Izan ere, hizkuntz historia egiteko ezinbestekoa da Filologia eta Hizkuntzalaritza eskutik joatea:

Iraganaldiko hizkuntz egoerak zehazteko, hizkuntzalariak filologiarik zehatzenaz, zorrotzenaz baliatu beharra dauka: zehaztasun filologikoan egindako aurrerapen bakoitzak hizkuntzalariari beste aurrerapausu bat egiteko aukera ematen dio. Bakoitzean, zorionez, estuago egiten ari diren filologoek eta konparatzaileen arteko harremanak, beharrezkoak dira hizkuntzalariak datu guztiak, datu zalantzagabeak eta zehaztasunik handienaz aztertutakoak erabiltzeko aukera izan dezan (Meillet 1925, nik egokitua; azpimarra nirea).

Filologi lana —“xehetasunen bilketa zuhurra eta balioztatze arretatsua” (Winter 1990: 371)— lehenagoko eta ezinbestekoa du hizkuntzalariak: hizkuntz informazioa ateratzeko zein iturri dauden eskura, nola lortu eta nola interpretatu; baina, aldi berean, hizkuntz historiaren arazoak non dauden eta azalbideak nondik doazkeen aurrez jakitea, filologoak izan dezakeen lan egiteko modurik emankorra da, laguntzen baitio testuen azterketan lehenetsunak ezartzen (zein testu edo zein ezaugarri aztertu eta zergatik).

Jakintza bien azken aurrerapenak berriz biltzen ari diren faktoreak anitz dira, soziolinguistikaren eta dialektologia historikoaren azken lorpenak ere tartean daudela. Dena den, lotura ez da sekula alde batera utzi, ez behintzat onenen artean.

Mitxelenak, berez hizkuntzalari izan arren, bere kabuz aztertu behar izan zituen —ezer ziurrik eraiki edo berreraiki nahi izatekotan— testurik zaharrenak eta esanguratsuenak, baita aurreko azterketak kritikatu eta osatu ere. Aldez jadanik ezagutzen ditugun ondoko hitzetan laburbil daiteke gaiari buruz zeukan ikuspegia:

Beharrezkoa izan beharko ez litzatekeen arren —eta ez da teoriarik, baina bai praktikan—, argi eta garbi esan behar da hizkuntzaren historiatik atera daitezkeen ondorioek erabateko lehenetsuna dutela (...), zeharkako metodoen bitartez erdiets daitezkeen inferentzia guztien, baita ziurren ere, gainetik.

(...)

Nolanahi ere, historiaurrea, zuzenean ezagutzen ez dugunari buruz egiten ditugun hipotesien aldamio gutxi-asko egongaitza, historiaren oinarriaren gainean bakarrik sostenga daiteke, hizkuntzaren egoera dokumentatuen gainean, eta historiaren arabera bakarrik existitzen da, zeren eta praktikan historiaurrearen balioa egoera haiek argitzeko daukan gaitasunaren arabera baita. Historiaurrean lasaitasunez aritzeko, beraz, eskura ditugun datuak ahalik eta hobekienik ezagutzen ahalegindu behar gara, datu bakar bat ere alde batera utzi gabe eta datuak aurkitzeko eta egiaztatzeko eginahal guztiak eginda (Mitxelena 1963: 15-16, nik itzulia).

Idea nagusia hauxe da: historiatik (datu historikoetatik) atera daitezkeen ondorioek erabateko lehentasuna dute historiaurrea berreraikitzeke asmoz erabiltzen ditugun metodoen bitartez (berreraiketa, barneberreraiketa, etab.) egiten ditugun hipotesien gainetik. Bestela esanda, hipotesia ederra izan arren, datuek gezurtatuz gero, alde batera utzi beharrekoa izango da. Honelako hitzen —eta bere ereduaren— balioa ez da mugatzen une hartako euskarari buruzko ikerketen egoerara.

Bitariko ariketa honek, testuen ezagutza onari arazo linguistikoen ezagutza gaineratzen diona, emaitza interesgarriak eman izan ditu gutxi ezagutzen diren hizkuntzen edota galdutako aldaeren kasuan. Benetan ikusgarria da Campbell-en (1990) lana hizkuntza maiei buruz: antzinako dokumentazioa —Colon osteko misiolarien gramatika eta hiztegiak gehienbat— eta antzinagokoa —hieroglifiko maien ulerpenean egindako azken aurrerapenak— erabiltzeak aukera eman zion hamaika norabidetan hizkuntza familia horri buruzko ezagutza hobetzeko. Saioaren ondorioak bai hizkuntza haiek hobeto ezagutzeko, noski, baina baita filologiarako eta, batez ere, linguistika historikorako oro har txundigarriak dira.

Mitxelenaren adibide klasikoan zein Campbellen berriagoan oso ondo antzeman daiteke Filologiaren eta Hizkuntzalaritza Historikoaren artean berez dauden harreman estu eta aberasgarriak.

4.2. Testu-corpora: lehen hurbilketa

CORPUSA edo TESTU-CORPUSA testu-bilduma bat da, eskuarki asmo zehatzen batekin eratu eta antolatutako testu-bilduma: adibidez, *Euskal Klasikoen Corpora (EKC, 2013)* < <http://www.ehu.eus/ehg/kc>>. Hauxe da aurkezpenaren dioena:

Corpus honek XVI. mendean hasi eta 1975. urtera arteko **496 liburu** jasotzen ditu, eta denera **11,9 milioi testu hitzez** osatuta dago. Horren aurretik zen klasikoen corpus osatuena OEHrena zen (303 liburu eta 5,8 milioi testu hitz), inoiz modu publikoan kontsultagai izan ez dena.

Honelako corpora hizkuntza era askotara aztertzeke dira baliagarriak: formak eta aldaerak lekukotzeke, haien erabilera aztertzeke, analisi estatistikoak egiteke, etab. Informatika jendartean zabaldu baino lehenago, corpuseko formak eskuz edo idazmakinez idatzitako paperezko fitxa bidez jasotzen ziren eskuarki, eta gero fitxak eskuz ordenatu behar ziren. Beneditarren eroapena behar zen corpus bat horrela antolatzeko. Honelakoa da, esaterako, Umandik bere *Asmo Hiztegia* handia eratzeko 1983tik aurrera bildu zuen corpora:

Hiztegiak 385.000 fitxaren edukia gordetzen du, eta *Umandi*-k hamar urte behar izan zituen fitxa horiek osatu ahal izateke. Urte hauetan, eguneko hamar bat ordu lanean ematen zituen. Fitxa guzti hauek 3.226 orrialdetan batu dira, eta bi liburutan banatu (Velez de Mendizabal 2001).

Honelaxekoa da, halaber, Koldo Mitxelenaren corpus handia, *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren oinarri izan zena, bera urte anitzetan zehar osatuz joan zena.

Informatikak, ostera, testu-corpora kudeatzeko aukerak biziki erraztu eta are biderkatu ditu, klik batez milaka eta are milioika formaren artean aukerak egiteko

erraztasunetik hasita. Adibidez, corpuseko formei *oharpenak* erantsi ahal zaizkie, hala nola gramatika-kategoria (izena, aditza, etab.) eta *lema* (oinarrizko unitate lexikoa). *Lematizatzea*-k oinarrizko forma batetik eratortzen diren forma guztiak elkarrekin biltzeko aukera ematen du: adib., *etxe*, *etxea*, *etxeko*, *etxeak*, *etxeetan*... edo *etorri*, *etortzen*, *etorriko*, *dator*, *zentozen*... denak *etxe* eta *etorri* lemapean sailka daitezke, zenbait lanetarako oso lagungarria baita, bistan denez.

Alabaina, guk “corpus” hitza gehienetan era orokor batean erabiliko dugu hemen: hizkuntza jakin baten testu guztien bilduma osoa litzateke, eta zentzu honetan “euskal testu corpora”-z hitz egingo dugu (ik. 2. gaia).

Aztergai dugun hizkuntzaren corpora nolakoa den eta honen arabera lehenagoko hizkuntz egoera zenbaiten berri zuzena izango dugu, hots, ez dugu den-dena berreraiki beharrik izango. Adibidez, akitanierazko lekukotasunetako <N> eta <NN> grafien arteko oposaketak oinarri sendoa eman zion Mitxelenari aitzineuskararako /N/ fonema bortitza eta /n/ ahula proposatzeko (ik. 4 eta 6. gaiak). Halaber, corpora egokia bada, hizkuntz egoera ezberdinen arteko konparaketa egiteko aukera izango dugu: hala garai ezberdinetako testuak (gorago *RS* eta Mikoleta erkatu ditugu) nola leku ezberdinetako testuak (XVI. mendean, Lazarraga eta Etxepare erka ditzakegu, adibidez).

4.3. Testuen mugak

Gorago ezarri dugu aurreko garaietako hizkuntza aztertzeko testuak —testu idatziak— direla gure bitarteko (ia) ezinutzizkoak. Honegatik oso garrantzizkoa da guretzat argi izatea testuak ez direla ahozko hizkuntzaren lekuko erabat fidagarriak. Aitzitik, idazkera mintzaeratik bereizten duten hamaika xehetasun daude: idazten *ikasi* egiten dugu, eta ikastearekin batera idazkerari dagozkion konbentzioak ere bai (grafia, hizkuntza estandarren arauak, literatur genero bakoitzari dagozkion ohiturak, etab.).

Filologoaren lana da dena delako testuaren muga hauek antzeman eta azaltzea. Esan ohi dugu testu bakoitzak bere arazoak dituela, eta honegatik testu bakoitzaren aurrean filologoak erabili behar dituen tresnak eta hartu behar dituen erabakiak neurri handi batean ezberdinak izango dira. Dena dela, aurkitu ohi ditugun arazoaren artean ohikoena izan daitezke grafiaren mugei dagokiena eta testua itzulpena izatea.

Maiz gertatzen da grafiak hizkuntzan dauden oposaketak zehaztasun gutxiz ordezkatzeko, edo ez ordezkatzeko batere. Lehenago aipatu dugunez, XVI-XVII. mendeko bizkaieraz baziren bokal sudurkariak; hala eta guztiz ere, idazle gehienek (Garibai eta Kapanaga salbu) ez zituzten idatziz adierazi, *yguy* (*RS* 3), *gastaeoc* (*RS* 52) adibideek erakusten digutenez. Honek behartzen gaitu testuz testu erabakitzea ea bokal sudurkariak badiren edo ez diren (gaiaren aurkezpen orokor baterako, cf. Mitxelena 1958: 28-30).⁷

Beste adibide bat. Larramendi arte, esateko moduan, Hegoaldean eta batez ere mendebalde oso zabal batean grafiak ez zituen bereizten txistukari frikariak eta afrikatuak: *aza* (edo *aça*) berdin zatekeen gure *aza* zein gure (*h*)*atza* ‘atzamarra’, eta *oso* (edo *osso*) gure *oso* zein gure *otso*. Gehien-gehienetan testuinguruak esango digu noiz den bata eta noiz den bestea, baina bitan behintzat erabakia ez da hain erraza. Landucciren hiztegiko *açaga* “postrimería” hapax dugu: *postrimería* ‘zerbaiten azkena’ izanik (cf. *DEL*), Mitxelenak azken batean arabetik datorren gazt. *zaga* ‘atzea’-rekin lotu zuen (cf. *zaguero* ‘atzelaria’) eta, hortaz, /s/-z irakurri behar dugula iradoki (*azaga*), baina Zuazok (1992) *atzaga* irakurketa ere egin litekeela argudiatu du, Kandido Izagirrek (1970, s.v.

⁷ Azkenotan aurrerapenen bat egin dugu alde honetatik, urteetan gaia bertan goxo utzi ondoren: cf. Aginagalde & Urgell (2012) eta Ulibarri (2015).

atzaga) Oñatin jasotako *atzaga* (batuaz *hatzaga*) ondare zaharreko hitzean bermaturik: “Vara que se pone de un árbol a otro para que se rasquen las ovejas” (*hatz + haga*, hortaz). Gure lehenengo arazoa, beraz, hapaxak interpretatzea da.

Ostera, txistukarien grafiarekin badugu arazo handiago bat neutraltzeetan. Ezaguna denez, (ia) euskaldun guztiok ozenaren ondoren afrikatuaren alde neutraltzen dugu: *pintzela* esango dugu, eta ez *pinzela* (gazt. *pinzel*), etab. Ekialdean, ordea, —eta hemendik “ia” hori— oposaketa mantendu da *r* ondoren: *haurzañ* esaten dute, eta ez *haurtzañ*, eta *alhargüntsa*, baina *ostalersa* (Mitxelena *FHV* § 14.6.d). Leizarragaren mintzoan ere (1571) oposaketa *n* ondoren bakarrik neutraltzen zen, frikariaren alde neutraldu ere (*berce / hartzen*, baina *kencen*, *iaquinsu*); garai bertsean, Landucciren lekukotasunaren arabera (1562), badirudi mendebaldeko eremu batean ere behintzat neutraltzea frikariaren aldekoa zatekeela (Mitxelena 1958: 20-21). Gauzak honela, frikariak eta afrikatuak grafikoki bereizten ez dituzten testuetan, nola letraldatuko ditugu ozen ondoko *balça*, *enzun*, *arcen*, *pulso* bezalako adibideak? Galdera ez da bakarrik bietako zeinen alde neutraltzen zuten garai bateko euskaldunek: neutraltzen ote zuten ere ez dakigu, eta baliteke batzuetan bakarrik neutraltzea ere. Erabaki zaila, inondik ere.

Itzulpenaren arazoak batez ere “kalko” kontzeptuaren inguruan sortuak dira. Itzultzailea trebea ez denean, jatorrizko hizkuntzaren hitzak eta are egiturak ere ez-arian bezala sartzten dira itzulpenean: *kalkatzen* ditu. Trebeak izanik ere, itzultzaileek askotan nahita egiten dute hori, guztiz prestigiodun hizkuntza batetik itzultzen ari direnean: haren hitzak eta ohiturak mailegatzea norberaren hizkuntza idatziz garatzeko ohiko modua izaten da. Esate baterako, Leizarragaren *Testamentu Berria* (1571) maileguz betea den arren —are *fluvio* ‘ibaia’ eta *pescadore* ‘arrantzalea’ bezalako harrigarriak ere—, ez dirudi trebetasun faltaz egina denik, baizik eta berariaz, itzulpenaren zehaztasunaren izenean besteak beste, gure adibideetan bigarrena honela azaltzen baitu:

pescadore, *arranzale*. Gehienzi lekhuetan [leku gehienetan] *arranzale* erraitenagatik, heuskaldun anhitzi (...) *Nik eginen zaituztet giza peskadore* hobeki itzeukiz [hobeagotzat hartuz], ezen ez *Nik eginen zaituztet gizarranzale*, hala usatu ukhan dugu (faks. 1214).

Zailtasunak antzemateko, aztertzeke eta gainditzeko metodo eraginkorrak ditu Filologiak hainbat alorretan: “Filologiaren armak”, Gorrochateguiren artikulu garrantzizko haren izenburuak dioenez (Gorrochategui 2011). Arma horiek aski ez direnean zailtasunak gainditzeko, gutxieneko kontuan arriskuak markatuta utziko ditu filologoak, corpusaren gainean lan egin behar duten diakronistak ez daitezten larregi fidatu.

Beste alde batetik, testuetan aurkitutako zailtasunek zeharkako ikerketa sistematikoak eginarazi dizkiete filologoei, ondoko testu azterketen lagungarri. Hauek dira garrantzizkoenetako batzuk: idazkeraren historia, grafiaren historia, literatur hizkuntzaren bilakaera, testuartekotasuna, itzulpenaren historia, ahozkoa eta idatzia banatzen dituzten ezaugarrien azterketa.

4.4. Lekukotasunak

LEKUKOTASUN edo DOKUMENTAZIOA forma bati buruz, delako hizkuntza batean forma hori argi eta garbi aurkitzen delako edo zelako froga nabaria da (“agerraldia” ere deitzen zaio).

LEHEN LEKUKOTASUNA delako formaren agerraldirik zaharrena da. Adibidez, Sarasolaren *Euskal Hiztegia*-n (hemendik aurrera *EH*) lehen lekukotasunaren datak jasotzen dira hitz guztietan:

agertoki (1897)

etorri (1539)
etrusko (1922)
iruindar (*2000)
kumetxo (*1745)
zagita (1665)

Data horiek akaso adierazten dute hitzok ez direla lehenago erabili euskaraz? Ez, jakina, inondik ere ez. Haiei buruzko lehen berri zurrak noiztik daukagun adierazi nahi dute.

Filologook ia kirol gisa hartu ohi dugu lehen lekukotasuna aurreratzea: *etorri*-ren 1539ko data oso berankorra da, bai baitirudi ehundaka urte lehenagotik ere erabiltzen ari zela: aurkituko ote dugu inoiz Erdi Aroko dokumenturen batean? Handia litzateke, noski, guretzat. Testu zaharrak aurkitu edota ustiatu ahala, beraz, lehen lekukotasunaren data aurreratzeko modua izaten dugu: 2004. urtean agertu zen Lazarragaren eskuizkribuari esker, esate baterako, goian aipatu *zagita* 'gezia' *EH*-k dioena baino ia mende bat aurreratu dugu (c. 1567-1602).

Lekukotasunak garbi bereizi behar ditugu berreraikitako formatik. BERRERAIKITAKO FORMA berreraiketaren bitartez lortzen den forma hipotetikoa baino ez da, ondoko forma dokumentatuak azaltzeko balio duena, hau da, euren arbasotzat proposatu dena: adibidez, euskalkietan sakabanatuta dauden *ardao*, *ardo*, *arno* aldaeren AITZINFORMA **ardano* delakoan gaude.

Adibidean ikus daitekeenez, lekukotasunetatik bereizteko izarra (*) erabiltzen dugu; hobeto esanda, erabili *behar* dugu. Akats larritzat jotzen da gure alorrean forma berreraikia izarrik gabe aipatzea, irakurleari iruzur egitea bezalaxe da eta. Dena dela, batzuetan berreraikitako formari izarra kendu behar izan zaio, hipotesia baino ez zena testuren batean agertu delako: nork daki ez ote dugun aurkituko **ardano* inoiz Erdi Aroko dokumenturen batean. Honela izatekotan, izarra kenduko genioke.

Lekukotasun guztiak ez dira berdinak ikertzailearentzat. Lehenik bereizi behar ditugu lekukotasun zuzenak eta zeharkakoak.

LEKUKOTASUN ZUZENAK: izen hau ematen zaie hizkuntza bateko testuei eta grabazioei. Lekukotasunik garrantzizkoenak dira, zuzenean hizkuntzaren nolakoaren berri emateko gauza direlako.

ZEHARKAKO LEKUKOTASUNAK, berriz, beste hizkuntza bateko testuetan jasoak dira. Gurean bi motatakoak dira batik bat: (1) toponimo-antroponimoak: honelakoak dira akitanierazkoak (latinezko idatzietan jasoak), bai eta Erdi Aroko gehienak (latinez eta erromantzez idatzitakoetan jasoak); (2) iruzkinak: honelakoa da jadanik ezagutzen dugun Madariagarena (1565): "La N alguna vez se pronuncia escondida en las narizes, como en orazioa, ardaoa...". Larramendik ere, euskararen lehen gramatika erdaraz idatzi zuenez, gaztelaniaz esaten digu, esate baterako, erlatiboak nola eratzen diren: "se ha de construir assí, *dedán escuá miragarria da*, y no *escuá dedaná*, aunque alguna vez se habla desta suerte" (Larramendi, *Imposible vencido*, 1729: 276-277).

Adibideok iradokitzen duten bezala, zeharkako lekukotasunak oso-oso garrantzizkoak dira beste lekukotasunik ez duten garaietan (Akitaniera garaia, Erdi Aroa), bai eta idatziek islatzen ez dituzten edo nekez islatzen dituzten alderdietan: Madariagaren adibidean, grafiak islatzen ez duen ahoskeraren berezitasun bat dago jasota; Larramendirenean, [IS Erl] hitz ordenaren garaiko (bere?) balorazioa ematen zaigu.

Hizkuntzaren historiarentzat garrantzizkoa da, halaber, lehen mailako eta bigarren mailako lekukotasunen artean bereiztea.

LEHEN MAILAKO LEKUKOTASUNAK gorago “lekukotasunak” deitu ditugun berak dira: dena delako hizkuntzan eginak diren testuak edo grabazioak. Etxepareren *Lingua Vasconum Primitiae* (1545) eta Kapanagaren dotrina (1656) euskararen lehen mailako lekukotasunak dira, baita *Ahotsak* proiektuko grabazioak ere, adibidez (<ahotsak.eus>).

BIGARREN MAILAKO LEKUKOTASUNen artean nagusiki gramatikak eta hiztegiak sartzen dira. Honela definitu ditu Osseltonek:

edozein motatako hitz zerrendak non hitzei buruzko proposizioak [‘baieztapenak’ edo ‘hipotesiak’] egiten diren, baina ez direnak (edo ez direnak nahitaez) halako garaitan halako hitzak benetan existitzen zirelako egiazko ebidentziak (Osselton 1990: 183; nik itzulia).

Hiztegiaren lana oso gogorra da, eta are gogorragoa zen informatikaren laguntzarik ez zen garaian. Honegatik, ezaguna da hiztegiak elkarri kopiatzeko ohitura oso zabalduta zegoela (eta dagoela). Honen ondorioz, batzuetan okerrak (“hitz iratxoak” deitzen ditugunak) hiztegiak hiztegi igaro dira, eta batzuetan are hiztegietatik testuetara. Begira zer dioen *OEH*-k *arnari* ‘fruitua’ sarreran:

Se trata de una palabra deducida erróneamente por Azkue de un escrito de Mendigacha: *Bagoak, aretxak eta artakarroak ekutendein frutiari erraiten zabei, bagoarnari magalla, aretxarnari zü), eta artakarroarnari artazi* (130). Se trataba, como se ve, de *-ar(e)nari* ‘al del’, con síncope de *-e-*, regular en este caso en salacenco y roncalés.

Euskaltzale asko maileguren ordezkoren bila ari zen garai garbizale hartan, Azkueren hiztegiaren (1905-1906) jasotako oker honek ondorioak izan zituen testuetan: *OEH*-ren datuen arabera, 1912an hasi eta Jon Etxaideren *Joanak joan* eleberriraino (1955) hainbat idazlek erabili zuten *arnari fruitu*-ren ordezkari, zehazki Mitxelena okerra salatu arte.

Halaber, ezaguna da hiztegiaren, arrazoiak arrazoi, sekula erabili ez diren hitzak agertzen direla. Honela bada, adibide ezagunenetako bat jartzearen, Larramendiren hiztegiaren (1745) ondokoa bezalakoak ehundaka aurkituko ditugu: “Metonymia (...), *aldicendá*”. Ez Larramendi baino lehen, ezta gero ere luzaro, inork ez zuen sumatu, dakigularik, “metonimia” kontzeptua euskaraz erabiltzeko inolako beharrik: *metonimia* mailegua bera 1977 arte ez du topatu *EH*-k, eta *aldizenda* ez du inortxok erabili euskararen historia guztian (*OEH*, s.v.). Badakigu, ordea, erdal hitz guztiak euskaraz eman beharrez osatu zuela Larramendik hiztegia, eta horretarako sarritan hitz berriak eratu zituela. Ondorioz, *Hiztegi Hirukoitz*-eko lekukotasun hori ez da, Osseltonek dioenez, hitza 1745 inguruan existitzen delako egiazko ebidentzia: aitzitik, bere eraketak diosku egiantz handiz Larramendiren neologismo bat dela. Berbera gertatzen da Pierre Urteren hiztegi (1712 b.l.) *hegoalde kontrako uztaia* “circulus antarcticus” (‘zirkulu antartikoa’) neologismoarekin eta Landucciren hiztegi (1562) *alcahueteadu* “alcahuetea” maileguarekin, alegia, ez dugula inolako bermerik pentsatzeko hitz horiek batak jaioterrian (Donibane Lohizunen) edo bestea aritu bide zen lekuan (Gasteizen?) orduan erabiltzen zirela, ezta inoiz erabili direla ere. Hiztegiaren proposamenak dira lehen bi kasuetan (Larramendi, Urte), eta azken kasuan baliteke berriemaileak erdal hitza euskaraz eman beharrez egindako behingo mailegua baino ez izatea (azken honetaz, ik. Urgell 2008).

Honegatik mintzo zen honela Mitxelena:

Ez da arrunta, nahiz izan beharko lukeen, testuen eta hiztegiaren artean hizkuntzalariek egin ohi duten bereizketa, zeren eta datuak nondik datozen, testuetatik ala hiztegietatik, eta ez baitute konfiantza bera merezi. Zeren eta hiztegi bat —hau da, hiztegiak bat— ez baita beti bildu nahi duen lexikoaren ispilu fidela: sarritan aldatu edota desitxuratzen du oharkabean edo aurreiritziz, erosotasunagatik edo bere ezjakintasuna ez aitortzeagatik (...). Horregatik, “hiztegi hitz” bat, lekukotasuna sendotu dezakeen berme askerik gabe, betiere printzipioz datu dudazko eta ez oso fidagarritzat (Mitxelena 1970: 26; nik itzul.).

Gauza bera gerta daiteke gramatiketan. Aditz paradigma izan daiteke honen adibiderik nabarmenena. Har dezagun Añibarroren *Gramática Bascongada*-ko (c. 1804) *erion* aditzaren paradigma:

Yo me: *dariat o dariot*
 Tu te o a ti te se: *dariazu, -riozu*
 Aquel: *dario*
 Nos: *dariagu*
 ...

Morfologi paradigmatan analogiak duen indarra kontuan izanik (ik. § 3.2.4), susma dezakegu erraz erabiltzen dugun *dario*-z gainerako formak, batzuk behintzat, gramatikagileak berak inferituak direla, analogikoki (ia) edozein euskaldunek egin dezakeen moduan. Izan ere, *daria* hitz hasiera bilatuz gero, *dariat*-en adibide bat bakarrik agertzen da *EKC*-n, Mogelen *Peru Abarka*-koa (*odola darijat arpegiti beera*); *dariot* hitz osoa bilatuz gero, bi adibide agertzen dira, lehena Kardaberatzena (*Aurpegitikan lotsa dariot zugana agertutean*), baina ez dago *dariogu*-ren adibide bakar bat ere. Zer pentsatu behar dugu? Guk orain *dario* bakarrik erabili arren, lehenagokoek aditz trinko honen paradigma guztia erabiltzen zutela? Ez jakin. Egia da XVI. mendetik hona aditz trinko asko galdu ditugula (*dirudi* bakarrik gorde dugu, ez *dirudit*, *dirudigu*, etab.), baina egia da, berebat, gramatikagileek paradigmatik osatzeko joera indartsua zutela (eta dutela). *Jario*-ren agerraldiak hobeto aztertuta ondorio ziurragoak aterako genituzke Añibarrok bildu zuen (edo agian bere kabuz osatu zuen) paradigma horretaz (xehetasun gehiagotarako, ik. *OEH*, s.v. *jario*).

Zerbait bigarren mailako lekukotasuna dela diogunean hauxe esan nahi dugu: beti fidagarriak ez diren testuak (lehen lekukotasunak) baino are tentu gehiagoz erabili beharreko lekukotasuna dela. Halere, gurea bezalako corpus urriko hizkuntzetan hiztegi eta gramatikak maiz ezinutzizko lekukotasunak dira eta, tentuz bada ere, erabili egin behar.

BIBLIOGRAFIA [egitasmoan dagoenaz gainerakoa]

- Aginagalde, B. & B. Urgell, 2012, “XVI. mendeko mendebaldeko lekukotasun berri bat: Sarasketa hiztegitxoa”, *ASJU* 46: 13-29.
- Aldai, Gontzal, 2012, “Sobre el origen de Martin Portal, autor de la poesía premiada en Pamplona en 1610”, *FLV* 114: 93-117.
- Aldrete, B. J., 1606, *Del origen y principio de la lengua castellana o romance que oi se usa en España. L. Nieto-ren arg. faksimilea eta azterketa (2 lib.)*. Madril: CSIC, 1975.
- , 1614, *Varias antigüedades de España, África y otras provincias*. Amberes: Iuan Hafrey.
- Bárcena Díaz, Letizia, 2011, “La objetividad en la Historia”, <https://www.uaeh.edu.mx/docencia/P_Lectura/prepa4/his_objetividad.pdf>.
- Bergs, A. and L. J. Brinton, Eds., 2012, *English Historical Linguistics. An International Handbook*. Berlin: De Gruyter Mouton.
- López de Arana, I. & M. M. López de Arana, 1998, “Rudolf Trebitsch: Euskal hizkuntzaren eta musikaren grabazioak (1913)”, *FLV* 77: 97-118.
- Ulibarri, Koldo, 2011, “1619. urtean Sevillan argitaraturiko bertsoak: *Cancion en lengua Vascongada o Vizcayna que contiene la sustancia deste Sermon*”, *ASJU* 45-1: 361-385.
- , 2015, *Dotrinazko Sermoitegia: galduriko hizkerak eta dialektologia historikoa*. Gasteiz: UPV/EHUko tesia.
- Urgell, B., 2008, “Berriemaileen gaitasuna eta eredu lexikografikoaren eragina Landucciren hiztegian”, in X. Artiagoitia and J. A. Lakarra, *Gramatika jaietan Patxi Goenagaren omenez*, Bilbao: “Julio Urkixo” Euskal Filologia Mintegia & UPV/EHU: 805-836.

- Velez de Mendizabal, Z., 2001, “Umandiren hiztegi ideologikoa kalean”
<<http://www.euskonews.com/0105zbk/gaia10505eu.html>>.
- Zuazo, K., 1992, “Azaga = Postrimería?”, *ASJU* 26-3: 1003-1006.